


#40 / 2023 EKAINA

arteka



**GERRA ETA
INPERIALISMOA**

GEDAR

Aldi batetik, kapitalismoan gerra saihetsezina dela defendatzen dutenek ez dute internazionalismo proletarioaren eta estrategia sozialistaren ezinbesteko abiapuntu gisa egiten; kontrara, parte-hartzaileetako bat, kasu honetan Errusia, absolbitzeko bide gisa egiten dute, herrien askatzaile gisa identifikatzen baitute, eta ez aktore inperialista gisa (gerra inperialista egon al daiteke, baldin eta lehian dauden potentziak ez badira beraiek kapital-bloke monopolikoak, hau da, borrokan dauden bloke inperialistak?). Halabeharrezkotasun hori zoritxartzat jotzen da, eta bandoa aukeratzen da, besterik ez.

Beste batzuek, aldiz, gerra Putinen eta errusiarren gaiztakeriaren ondorio gisa aurkezten dute, eta horren aurrean ezin da ezer egin, sortzetiko gaiztakeria baita.

Edukia Contenido

6

10

26

46

EDITORIALA

Arteka

**Gerra eta
inperialismoa**

ERREPORTAJEA

Alex Fernández

**Inperialismoa eta
iraultza: kapitalismo
aurreratuari
buruzko eztabaida
sozialdemokrata**

KOLABORAZIOA

Pablo C. Ruiz

**Inperialismoa eta
klase borroka.
Ukrainako gerrari
buruzko oharrak**

ERREPORTAJEA

Naia Gurrutxaga

**XX. mendeko
inperialismoaren
inguruko
eztabaidak: alderdi
sozialdemokraten
posizionamendu-
aldaketa argitara**

Gerra eta inperialismoa

Editoriala

Eztabaida handien aurretik gertakari handiak izaten dira beti. Ez dira buru bikain batek prozesaturiko ideologiak bere buruarekin duen harremanaren emaitza, batzuek uste duten bezala; ezta orain arte lortutako ezagutza mailarik altuenaren hedapen kontzeptual soilaren emaitza ere, ezagutza naturatik datorren iturri agortezin bat balitz bezala. Eztabaidak praktikaren uneak dira beti, non praktikaren inguruan erabakitzen den. Hori da, halaber, inperialismoaren inguruko eztabaidaren kasua, munduko potentzia handien arteko gerraren berotasunean sortua. Noski, eztabaida horren helburua ez da, soilik, kontzeptua argitzea, jakintzari lotutako fetitxe zientifiko batez ariko bagina bezala –eta horretan parte hartzen dutenak jakintzaren zientzialariak edo orojakileak–; aitzitik, garatu beharreko estrategia politikoaren bitarteko argigarri gisa, kontzeptu-argitasuna du helburu.

Horregatik, eztabaida, egoera jakin batzuetan bakarrik da eztabaida politikoa, eta ez da hala, jakina, jakintzarekiko konpromiso soila denean. Ez da eztabaida politikoa, ezta ere, tesi jakin batzuen inguruan zirkuluetan garatzen dena eta praktikaren abiapuntua ideologia dela eta, ordura arte, balio duen klase borrokarik ez dagoela baieztatzen dena. Balantze bat badago, gure klase etsaiaren aurka borrokatuz egin behar duguna da hori, eta ez iraganeko mamuen aurka. Edo, beste era batera esanda, iraganeko eztabaidak berreskuratzen baditugu eta horietaz elikatzen bagara, orainak antolakuntza-bitarteko gisa inposatzen digulako bakarrik izan daiteke hori. Eta etsaiari aurka egitea, baita teoriaren mailan ere, antolakuntza komunistaren egiaren unea bada soilik da posible teoria.

***Iraganeko eztabaidak berreskuratzen
baditugu eta horietaz elikatzen bagara,
orainak antolakuntza-bitarteko gisa
inposatzen digulako bakarrik izan daiteke
hori. Eta etsaiari aurka egitea, baita teoriaren
mailan ere, antolakuntza komunistaren
egiaren unea bada soilik da posible teoria***

Eztabaidak, halako egoeretan, eztabaida politiko gisa, jarrera polarizatuak eta etsaitasun politikoak sortzen ditu. Bestela ez litzateke eztabaida izango, jakintza abstrakturako bide soil bat baizik. Baina etsaitasun horiek ezin dira gizabanakoen arteko liskarretara mugatu. Kontrara, eztabaida horiek eurekin dakarte aurkakoak diren antolakuntza-moduen arteko borroka eta klase borrokaren hedapen gisa (eta ez, modu absolutuan, praktikaren aurretik datorren eztabaida soil gisa) gauzatzen den egiazko gerra.

1914an hasitako gerra inperialistak komunismoaren eta sozialdemokraziaren arteko etsaitasun politiko piztu zuen, gaur egun ezagutzen dugun bezala. Inperialismoaren inguruko argipenak estrategia komunistaren argipena ekarri zuen gerraren aurrean eta, jakina, sozialdemokrazia nazionalistaren aurrean, zeinak, II. Internazionalaren izaeraren aurka eginez, bere estatu nazionala defendatzeko erabakia hartu zuen

Gerraren ondorioak negargarriak izan ziren mugimendu sozialistarentzat. Internazionalaren porrotak, hedatzen ari zen gerra baten aurrean, komunisten isolatzea eta atzera-egitea ekarri zituen, estrategia birpentsatu ahal izateko eta komunismoa langile klasearen abangoardiako politika gisa berrantolatu ahal izateko. Horregatik, inperialismoaren inguruko eztabaidek eduki politiko nabarmena izan zuten. Kontua ez zen fenomeno modu isolatuan ezaugarritzea, fenomenoarekin batera zabaltzen zen koiuntura politiko ezaugarritzea baizik, hau da, iraultza sozialistarako irekitzen ziren aukerak aztertzea.

Ordura arte sozialdemokrazia gisa ezagutzen zenaren haustura, sozialdemokraten eta komunisten arteko bereizketarainoko bidea irekiko zuena, ez zen inperialismoari buruzko ikuskera desberdin baten ondorioa izan, baizik eta, oso alderantziz, haren inguruan erabat kontrajarriak ziren bi jarreraren ondorioa: batetik, «defentsismoaren» banderapean beren burgesia gerra inperialistan babestu zutenak; eta, bestetik, atzera-egite nazionalistaren eta proletalgoaren menderatze burgesaren aurrean, internazionalismo proletarioa defendatu zutenak, burgesiaren aurkako ofentsibaren eta gerra zibila-ren banderapean.

**Ordura arte sozialdemokrazia
gisa ezagutzen zenaren haustura,
sozialdemokraten eta komunisten
arteko bereizketarainoko
bidea irekiko zuena, ez zen
inperialismoari buruzko ikuskera
desberdin baten ondorioa izan,
baizik eta, oso alderantziz, haren
inguruan erabat kontrajarriak
ziren bi jarreraren ondorioa**

Argitze kontzeptualarekin jokoan zegoena ez zen, beraz, etorkizunean posizio politiko bat hedatzea, posizio politiko hori argitze kontzeptualaren aurretik datorren posizio gisa baieztatzea baizik. Hau da, eztabaidaren aurretik jada bi subjektu politiko zeudelako soilik izan zen posible eztabaida hori, harean elkarren aurka egiten zutenak eta une teorikoa antolakuntza-beharren mendeko egiten zutenak.

Leninek inperialismoari buruzko eztabaidan lortutako erreferentzia ez zen soilik inperialismoaren inguruan izandako eztabaidak sintetizatzeko izan zuen gaitasunagatik izan. Erreferentzia lortu zuen, hain zuzen ere, politikaren arloan, hau da, gerra inperialistaren eta horrek langile mugimenduan zituen jarraitzaileen aurkako borrokan, bete zuen antolakuntza-funtzioagatik. Leninen teoriak balioa eta indarra hartzen ditu praktika boltxebi-kearen elementu bateratzailea zelako. Horregatik, bere elementu nagusiak zaintzea ezinbesteko zeregin bihurtzen da, baita gaur egun ere, komunismoaren etika eta programa iraultzaile gisa duen balioa babesteko bakar-bakarrik izanda ere.

Zeregin horrek Leninen pentsamenduaren muina defendatzea eskatzen du, bere egia handia: iraultza sozialista eta politika iraultzailea, errealitate zehatzaren azterketan babestu beharreko elementu nagusi gisa. Aitzitik, Leninek inperialismoaren inguruan zuen ikusmoldeak –kapital industrialaren eta kapital finantzarioaren fusio monopoliko gisa laburtzen dena– jaso dituen kritika askok inperialismoaren kritikaren muinetik politika erauztea eragin dute, eta hori lortu dute elementu nagusia den monopolioa botere ahalguztidun bezala erauziz. Izan ere, Leninen teorian monopolioak honako hau nabarmendu nahi du: «kapitalaren menderatze inpersonala» abstrakzio bat dela, forma zehatza hartzen duena burgesiak proletalgoaren gainean gauzatzen duen menderatzean eta ez pertsona zehaztugabeen arteko harreman sozialean –eta, beraz, gerra ez dela merkatu-lege soil bat, erantzuleak dituela eta horien aurka antolatu behar dela; gerra zibila egin behar zaiela–.

Leninen teorian monopolioak honako hau nabarmendu nahi du: «kapitalaren menderatze inpertsonala» abstrakzio bat dela, forma zehatza hartzen duena burgesiak proletalgoaren gainean gauzatzen duen menderatzean eta ez pertsona zehaztugabeen arteko harreman sozialean –eta, beraz, gerra ez dela merkatu-lege soil bat, erantzuleak dituela eta horien aurka antolatu behar dela; gerra zibila egin behar zaiela–

Baina politikaren abolizioak, teoriaren muinean, ez dakar subjektua oro har ezabatzea, subjektu menderatzailearen zehaztugabetasuna baizik, eta, horrekin batera, subjektu komunistaren ezintasuna. Horrela, gerrak buru maltzurren emaitza bezala azaltzen dira, gizonezkoei berezko zaizkiela babes-ten ez denean, ia biologiaren aztergai bihurtuak; ia naturalak diren gertakizun bezala ere azaltzen dira gerrak, kapitalismoaren ondorioz sortuak, bai, baina kapitalisten blokeen arteko borroka zehatz gisa ulertu ezin den kapitalismo abstraktu baten ondorioz. Horregatik, gerraren halabeharrezkotasuna ordezkaririk onak hautatzearen aldeko herri borondateari lotuta dago, zeina, arrazoi bitxiren batengatik, ez baita gertatzen, gerrak saihetsezin bihurtuz, gizakiaren gaiztakeria saihetsezin dela dirudien bezala; edo saihetsezinak dira, besterik gabe, ulertu ezin den izate baten emaitza direlako.

Badirudi kasu horiek Ukrainako gerran ere errepikatzen direla. Alde batetik, kapitalismoan gerra saihetsezina dela defendatzen dutenek ez dute internazionalismo proletarioaren eta estrategia sozialistaren ezinbesteko abiapuntu gisa egin; kontrara, parte-hartzaileetako bat, kasu honetan Errusia, absoltitzeko bide gisa egiten dute, herrien askatzaile gisa identifikatzen baitute, eta ez aktore inperialista gisa (gerra inperialista egon al daiteke, baldin eta lehian dauden potentziak ez badira beraiek kapital-bloke monopolikoak, hau da, borrokan dauden bloke inperialistak?). Halabeharrezkotasun hori zoritxartzat jotzen da, eta bandoa aukeratzen da, besterik ez.

Beste batzuek, aldiz, gerra Putinen eta errusiarrren gaiztakeriaren ondorio gisa aurkezten dute, eta horren aurrean ezin da ezer egin, sortzetiko gaiztakeria baita.

Bere edozein bertsiotan, inperialismoa eta Leninek gerra inperialistaren inguruan egindako tesien muina ulertzeko ezgaitasunagatik, gerra fenomeno ulertezin bihurtzen da. Lenin eta bere borroka berreskuratzea bitarteko bihurtzen da, aurre egin ahal izateko gerraren posizio legitimatzaileei, berriaz ere «defentsismoaren» banderara atzera egin dutenak: errusiar gaiztakeriaren aurka defendatu, edo Errusia defendatu Mendebaldearen gaiztakeriaren aurrean. Azken batean, nazionalismoa eta erreakzioa, eta internazionalismo proletarioaren abolizioa, zeinaren kontsigna argia baita: kapitalari eta kapitalistei gerra. ●

INPERIALISMOA ETA IRAULTZA: kapitalismo aurreratuari buruzko eztabaida sozialdemokrata

10

Testua — **Alex Fernández**

Irudia — **Zoe Martikorena**

Inperialismoa, bere adiera zabalenean, berezkoa du giza zibilizazioak, eta berezkoa du, termino marxistetan, klase-borrokaren historiak ere. Lurralde barbaroetara kultura propioa, arau eta sinesmen-sistema propioa zabaltzeko inertzia zuten Babiloniako, Egiptoko, Greziako edo Erromako zibilizazioek. Azken horretatik dator ondoren etorriko ziren inperio guztiek beren zerbitzura erabiliko zuten armategi mitologikoa, *imperium* terminotik beretik hasita, latinez agintari militarren nagusitasuna eta boterea esan nahi baitu. Aurreko mendean, duela gutxi alegia, Errusiako eta Alemaniako inperioetako agintari nagusiak «Zar» edo «Kaiser» izenez ezagutzen ziren; biak ala biak Caesar hitz latindarretik eratorriak dira, hau da, Zesar enperadorearen izenetik.

Iraultzaile sozialistak inperialismoaren teoria marxista lantzen hasi zirenean, botere-egiturak, gainazalean behintzat, hurbilago zeuden inperio tradizionaletatik Txinaren edo Estatu Batuen moduko inperio «postmodernoetatik» baino. Lehen aipatu ditugun Errusiako eta Alemaniako inperioez gain, XX. mendearen hasieran Europako lurretan baziren beste inperio batzuk ere: Austro-Hungariako Inperioa eta Otomandar Inperioa. Monarkia britainiarra eta belgiarra, Frantziako Errepublika bezala, inperio garrantzitsuak ziren itsasoaz bestalde, ordura arte Espaniaren Inperioa izan zen era bertsuan (denbora gutxi zen hark behea jo zuela). Mundu gerra bat eta iraultza proletarioen bolada bat –ez kasualitatez, iraultza horiek eragina izan zuen Errusian, Hungarian eta Alemanian– behar izan ziren gaur egun ezagutzen ditugun moduko nazio-estatuaren eredu politiko eta kulturala normalizatzeko. Une horretara arte, eta Aro Moderno osoan zehar, normalena kontrakoa zen: integrazio-politikoko ereduak izan ohi zituzten, unitate administratibo territorialki zabaletan oinarrituak, eta, haietan, ezinbestekoa zen beren artean oso desberdinak ziren talde etniko-linguistikoak elkarrekin bizitzea.

Nahiz eta bazirudien mendearen hasieran Europako inperioen artean jarraitutasuna zegoela eta aurreko inperioak ere antzekoak zirela elkarren artean, Mendebaldeko gizarteak izaten ari ziren eraldaketa handien ondorioz, sozialismoaren teorialariak hausnartzen hasi ziren beren garaiko inperialismoa hartzen ari zen forma *espezifikoki kapitalistari* buruz. Marxek bere *Brumairearen 18a* ^[1] liburuan gogorarazten duenez, Frantziako iraultzaileek Brutotar eta Gracotar *erromaniten* moztuak ekoizpen-eredu berri baten ustekabeko emergentzia pertsonifikatu zuten bezala, bazirudien XX. mendearen hasierako *zesarrak* gainbehean zeudela, eta, era berean, formazio sozial hori behin betiko krisian zela. Beraz, kontraesan sozialak areagotu zituen prozesu horren atzeko arrazoi ekonomikoak ulertu behar ziren. Zehatzago esanda, sozialismoaren teorialariek kontzeptualizatu egin nahi izan zituzten «inperialismoaren» etiketarenean multzokatutako sintoma orduan ezezagun horiek. Kontzeptualizazio hori, gainera, ez zitzaien lotu behar historiako gizon handien jauregiak azpikeriei, ezpada ekoizpen-eredu kapitalistaren barneko determinazioei. Artikulu honek zentzu horretan egin diren saiakera nagusien errepaso labur bat egingo du, helburua izanik inperialismoaren kategoria marxismo iraultzailearen marko estrategiko eta taktikoan kokatzea ^[2].

Azpimarratu beharreko lehenbiziko kontua da ez Marxek eta ez Engelesek ere ez zutela sekula erabili «inperialismo» hitza ondoren hartu zuen zentzu zientifikoan. Haien obran ez dago gaur egungo ekoizpen-eredu honen fenomeno bereizgarritzat hartzen duen teoria minimoki sistematikorik, ez behintzat Irlandari, Indiari edo Txinari buruzko ohar eta artikulu batzuez harago. Antzeko teoriaren batera gehien hurbiltzen dena *Kapitala* laneko «kolonizazioaren teoria modernoa» ^[3] kapitulu orriak dira (azkeneko kapitulua).

Iraultzaile sozialistak inperialismoaren teoria marxista lantzen hasi zirenean, botere-egiturak, gainazalean behintzat, hurbilago zeuden inperio tradizionaletatik Txinaren edo Estatu Batuen moduko inperio «postmodernoetatik» baino

Azpimarratu beharreko lehenbiziko kontua da ez Marxek eta ez Engelesek ere ez zutela sekula erabili «inperialismo» hitza ondoren hartu zuen zentzu zientifikoan

Bertan, Marxek azaltzen du nola jokatu behar duen kapitalak ekoizpen sozialeko baldintzak aldatzeko kolonietan, hots, ekoizpen-harreman propioki kapitalistak *ex nihilo* sortu behar diren lurretan. Marxen eta Engelesen segidan etorri zirenek, Alemaniako Alderdi Sozialdemokrataren eta Internazional Sozialista inguruan antolatuta, ez zioten arreta berezirik eman inperialismoaren arazoari, ez behintzat zentzu teorikoan. 1907an hasi ziren lehenbiziko aldiz auzi horri marko teoriko marxista aplikatzen ^[4], markoa aldatuta eta koiuntura berriaren errealtatera egokituta, aurrerago ikusiko dugunez.

Interes gero eta nabariago horretan bitartekari izan zen 1905eko Errusiako Iraultza. 1905eko herri-matxinada elkarren artean loturik dauden bi konturengatik da esanguratsua. Lehena da iraultza ez zela posible izango Errusiako eta Japoniako Inperioen arteko gatazka militarra egon izan ez balitz (1904-1905); Leninen arabera, gatazka hori «Munduko historiaren garai berri haren mugarri nagusietako bat izan zen» ^[6]. Azpimarratu behar den bigarren kontua da 1905eko Errusiako Iraultzak, masa-grebak eginez eta unitate administratibo demokratikoak espontaneoki sortuz –kontseilu edo *soviet* ezagunak–, Europako sozialdemokraziaren arreta bereganatu zuela iraultzaren hurrengo urteetan; izan ere, sozialdemokraziak esperimentazio-eremu bat ikusi zuen bertan, errusiarrek unibertsalizatzeko moduko borroka-bitartekoak sortu zituzten neurrian. Hala, sinbiosi nolabaiteko bat sortzen joan zen gero eta tentsio inperialista handiagoa zuen testuinguru moduko baten eta Estatuaren eta Kapitalaren gainean antolatutako ofentsiba baterako posibilitate politikoaren artean. Gutxienez, hala interpretatu zuten sozialismoaren filek; orduz geroztik, une hartakoa «iraultzaren gaurkotasuneko» sasoi bat zelako tesia hasi zen zabaltzen. Inperialismo kontzeptua, beraz, ez zen testuinguru ekonomiko berri baten baldintzak ezagutzeko tresna bakarrik. Guztiaren gainetik, iraultzaren taktika eta hari zegozkion antolakuntza-formak birformulatzeko kontzeptu estrategiko baten definizio teorikorako bidea zabaltzen zuen.

Hala adierazi zuen inplizituki Rosa Luxemburgek *Masen greba, alderdia eta sindikatuak* (1906) ^[6] liburuan. Errusiako esperientzia berrian inspiratutako esku-hartzeko modu berriak pentsatzeak berekin zekarren baldintza sozial berriak aztertzea; izan ere,



esku-hartzeko forma horiek baldintza berrietan proiektatzekoak ziren. *Masen greba, alderdia eta sindikatuak* lanean, «inperialismoa» eta «krisia» errealitate historiko bereko kategoria gisa aurkezten dira, eta, hortaz, kategoria trukagarri moduan. Nahiz eta Luxemburgen liburuak aipatzen duen Gramscik agian harreman zuzenegia ezarri zuela baldintza ekonomikoen eta prozesu politikoaren artean ^[7] –kasu honetan krisia eta inperialismoaren eta iraultza proletarioaren artean–, haren oinarritzko xedeak norabide zuzena du (ekarpena egin nahi zuen ekintza iraultzailea bere posibilitate-baldintza sozialak burutze moduan ulertarazteko). Luxemburgentzat, beraz, inperialismoak kapital-metaketak dakarrean adierazpenik argiena da. Krisia, era berean, ekoizpen-harreman zaharrak iraultzea objektiboki posible bilakatzeko oinarri historiko eta soziala litzateke.

Inperialismo kontzeptua, beraz, ez zen testuinguru ekonomiko berri baten baldintzak ezagutzeko tresna bakarrik. Guztiaren gainetik, iraultzaren taktika eta hari zegozkion antolakuntza-formak birformulatzeko kontzeptu estrategiko baten definizio teorikorako bidea zabaltzen zuen

Erreforma ala iraultza panfleto eza-gunean (1902) –bide batez esanda, lan horretan kapitalaren krisia ekintza iraultzailearen beharrezko baldintza gisa agertzen da– Luxemburgek munduko politika eta langile-mugimendua identifikatu zituen bere garaiko Estatuaren gai nagusitzat (garaia kapitalismoa nazioartean garatzen ari zen fase konkretu moduan ulertuta). Militarismoa, iraultzaile poloniarren arabera, ez zen ekonomia kapitalistaren osagarri kontingentea, baizik eta haren barne-dinamikaren beharrezko emaitza ^[8]. Beste era batera esanda, iraultzaile poloniarren ustetan, militarismoa ez zen ekoizpen-modu kapitalistaren bilakaerarako *premis*a bat, baizik eta ekoizpen-modu horren garapen kontsekuentearen *ondorio logiko* bat, eta zentzu horretan, basakeria berehala zetorrela aurreikusten zuen zurrumurrua. Nolanahi ere, Luxemburgek 1913 urtean aurkeztu zuen estreinakoz krisiaren eta inperialismoaren teoria sistematiko bat. *Kapitalaren metaketa* obran egin zuen hori, eta, haren esanetan, lan horren helburua inperialismoaren aurka borrokatzeko oinarri zientifikoa bat eskaintzea zen ^[9].

Bere krisiaren teoriak –maiz kolapsoaren teoria ere esan izan zaio– meritu agerikoak zituen, kontzeptu nahasketak bat edo beste, eta akats teoriko handi bat hondoan. Esatea merezi duen bertuteetako bat, gaur egun oraindik ere indarrean dena, ideia hau da: «inperialismoaren sustrai ekonomikoak kapital-metaketaaren legeetan daude modu espezifiko batean, eta haiekiko konkordantzia ulertu behar da» ^[10]. Luxemburgen obrak marxismoaren historia ekonomikoan garai bat markatzen du, eta sententzia hori beteazteko saiakera bat da. Beste itxuraz txikiagoa seinalatzen dio Rosdolskyk Luxemburgi *Grundrisse* obrei buruz egin zuen ikerketan, esaten baitu Rosa Luxemburgek nahastu egiten dituela «kapitala oro har» eta «kapital sozial totala» kategoria marxianoak ^[11], eta, hala, okerrak direla haren ikerkuntza-aren emaitzak. Hondoko akats teorikoa, krisiaz duen ulerkera *subkonsumistare*kin lotua, zera da: esaten duen arren kapitalaren kritika inmanente bat egin behar dela eta inperialismoa eta krisia kapitalaren barne-dinamiken emaitza moduan ulertu behar direla, Luxemburgek muga hori kanpo-instantzia transzedente batera darama, zehazki kapitalak gainbalioa eskuratu nahi duen herrialde ez-kapitalistetara, eta haiek gabe kolapsoa saihestezina litzatekeela esaten du.

Ziurrenik horrek bultzatu zuen Lenin, haren ohar pertsonalak eta azkenik argitaratu ez zuen artikulu kritiko bat ikusita, Kamenevi gutun bat idazte-
ra: «Rosaren liburu berria irakurri dut, *Kapitalaren metaketa*. Hanka sartu du erabat!». Leninen inperialismoari buruzko teoriak, zeinak irakurle gehienek arreta bereganatu baitzuen, bestelako ikerketa-lerro bat aldarrikatzen du temati; hain justu, Luxemburgen paraleloan garatu zen lerro hori. Inspirazio-iturri izan zituen Hobsonen *Inperialismoa* (1902) ^[12], Rudolf Hilferdingen *Kapital finantzarioa* (1910) ^[13] eta Bujarinen *Inperialismoa eta munduko ekonomia* (1915ean idatzia; Leninek hitzaurrea egin zion urte horretan bertan, baina beranduago argitaratu zen) ^[14]. Leninek Hobsonen eta Hilferdingen obren garrantzia aitortu arren –gaiari buruzko literatura sozialista guztiak bi iturri horietatik edan zuen–, Leninek esan zuen ez direla auzi hori azaltzera iristen, hau da, ez zirela ailegatzen zientifikoki argudiatzera aztergaiaren determinazio guztiak, soilik auziaren ezaugarri nagusiak *laburbiltzen* zituztenez. *Inperialismoa: kapitalismoaren fase gorena* (1916) ^[15] Leninen liburua, zentzu horretan, laburpen baten laburpena da, helburu duena, inspirazio-iturri dituen egileen obra hedatzeaz gain, politikoki koiunturan interbenitzea.

XX. mendeko marxismoaren kontzeptu estrategiko nagusiak une horretan izan zuen populartasun handiena, baina, Leninen hitzetatik ondoriozta daitekeenez, ez zuen oinarria emango zion teoria solidorik. Proletalgoak kapitalaren aurka izandako lehenengo oldarraldia igarota (1917-1923), adibidez Stalinekin, *Leninismoaren fundamenduak* (1924) ^[16] obran, «sozialismoa herrialde bakarrean» izeneko bere teoria sostengatzeko elementu moduan erabiltzen du inperialismoa, eta inperialismoa lehenbiziko aldiz bereizita ageri da inperialismoaren teoriak une horretako nazioarteko iraultzaren zerbitzura betetzen zuen funtzioetik. Gerora egin ziren hurbilpen teorikoek soilik rol politikoa teoriatik bereizte hori nabarmendu zuten, eta ez zuten funtzio argirik bete kapitalaren aurkako oldarraldi bat sustatzeko indar proletario independente bat artikulatzera begira. Talde horretan zeuden besteak beste Baran, Sweezy, Arrghi, mendekotasunaren teorialariak, Emmanuel edo Samir Amin. Gai horri buruzko bibliografia marxistak, hain justu, ugaritu egin da hamarkadek aurrera egin ahala, baina alternatiba bat bera ere ez zaie nabarmen gailendu besteei, eta kontzeptuaren argipenak ez du balio izan estrategia arrakastatsurik definitzeko.

Estrategia hori definitzea zen, ordea, Leninen helburu nagusia. Hura ulertzeko beharrezkoa da *Inperialismoa* obran erabiltzen dituen argudio teoriko inplizituak ulertzea; izan ere, haren oinarritzko muga eta prentzioak argigarri izan daitezke garaiko kontzientzia zientifikoa ulertzeko, eta baita proiektu iraultzaile komunista ere, urte erabakagarri haietan konfiguratu zen moduan. Zentzu horretan, ezinbesteko erreferentzia da Hilferdingen *Kapital finantzarioa* (1910) lana. «Kapitalismoaren bilakaera berriaren manifestazio ekonomikoak zientifikoki ulertzea helburu» ^[17], obra hori haize

XX. mendeko marxismoaren kontzeptu estrategiko nagusiak une horretan izan zuen populartasun handiena, baina, Leninen hitzetatik ondoriozta daitekeenez, ez zuen oinarria emango zion teoria solidorik

bolada fresko baten moduan taularatu zela panorama intelektual marxistan. Karl Kautskyk, marxismoaren autoritate espiritual eztabaidea ezin (haren aita, egiaz), baieztatu zuen Hilferdingen liburua «Marxen *Kapitalaren* jarraipentzat» ^[18] har daitekeela. Zergatik, ordea, «jarraipena»? Urte horietan indartu zen Marxen teoriaren ulerkerak zioen Marxen obra nahusiaren xedea kapitalismoaren garapena deskribatzea zela, hau da, denboran zehar zer bilakaera izan duen deskribatzea, abiapuntu izanik ustez merkantzien ekoizpen sinplean oinarritutako gizarte primitiboa, zeinak gizarte industrial garaikidea ekarri baitzuen. Ikuspuntu horretatik –ikerketa berrienek, mugak muga, arrakastaz gezurtatzen dute ^[19]–, arrazoizkoa zen suposatzea *Kapitala* gaurkotu egin behar zela kapitalismoaren garapen berrienetara egokitzeke, ustez ez baitzen gai aldaketa horiek aurreikusteko eta deskribatzeko.





Kapitalismoaren bilakaerak, bereziki 1870etik aurrera, ekonomia kapitalistan kreditu- eta finantza-mekanismoek gero eta protagonismo handiagoa izatea ekarri zuen. Hilferdingek protagonismo hori zuzenean inperialismoaren emergentziari lotzen dio, hau da, esaten du kapitalari atzerrian dituen inbertsioak errentabilizatzea bultzatzen duen behar bati erantzuten dion fenomeno bat dela, eta horretarako instrumentu pribilegiatua direla finantzak. Hilferdingen arabera, «kapitalaren esportazioak ere politika inperialista baten mesedetan jarduten du» ^[20], eta, beraz, haren ustez «irtenbide biolentoa izan beharko du» ^[21]. Hori horrela, fase inperialistaren ekonomiari ezinbestean zegokion politika inperialista egitea, eta politika horren kontraesanek proletariotzaren diktaduraren ezarpena eta hura behin betiko kapitalari gailentzea ekarri behar lukete.

Kautskyk, aldiz, nahiz eta kritikoa agertu zen Hilferdingek defendatutako diruaren teoriarekin, badirudi onartu egin zituela haren argudio gehienak. Argudio horiek teorikoki Kautskyk berak *Boterearen bidea* (1909) lanean definitua zuen postura teorikoki justifikatzera zetozen. Liburu horrek aldeztu du «inperialismoaren eta militarismoaren aurkako borroka nazioarteko proletariotza osoaren zeregin komunak» ^[22] zela eta erreformismoa gero eta anakronikoagoa zela Estatuaren autoritarismoa eta militarismoa gordintzen ari ziren garai hartan. Liburu horretako ondorio politiko nagusiak nabarmen aldatu zituen Kautskyk ondorengo urteetan, zehazki «ultrainperialismoaren» teoria ezagunean, 1911 eta 1914 urteen artean. Leninek dioenez, Kautskyk gatazka inperialista kapital finantzarioaren –kapital bankarioa eta industrial batzen dituen politikaren beharrezko ondorio moduan defendatzetik atzera egin zuen, eta kapital industrialaren eta kapital bankarioaren arteko bereizketa egitea pasatu zen, lehenbizikoa nazionala eta baketsua eta bigarrena hedakorra eta militarista moduan definituz. Hori horrela, gradualismo taktiko bat onartzea igaro zen, Hobsonen moduko egileen sozioliberalismoak erraz asimilatze modukoa.

Sozialismoa, literalki, arazo existentzialtzat jotzera igaro ziren, kontuan hartuta sozialismoa gerra inperialistaren makineriak sartzeak de facto desegiten zuela sozialismoak eragile politiko bereizi moduan izan zezakeen rola. Testuinguru horretan, Leninek modu erabakigarrian esku hartu zuen

Alemaniko sozialdemokraziak gerra-kredituak onartu izanak, Internazionalaren eta proletariotzaren unitate internazionalistaren kolapsatu izanak eta ehunka milaka proletarioren bizitza galtzea ekarri zuen sarraski hark inperialismoaren auzian urgentea eta beharrezkoa den hori bateratzea azkartu zuen. Ez ziren soilik programa sozialistaren bideragarritasuna zalan-tzan jartzen ari; sozialismoa, literalki, arazo existentzialtzat jotzera igaro ziren, kontuan hartuta sozialismoa gerra inperialistaren makineriak sartzeak *de facto* desegiten zuela sozialismoak eragile politiko bereizi moduan izan zezakeen rola. Testuinguru horretan, Leninek modu erabakigarrian esku hartu zuen. Jarraian, Leninek inperialismoaz duen ulerkeraren hiru akats teoriko azpimarratuko dut. Hala ere, jenio handien handitasuna haien akatsen handitasunean laburbildu daitekeenez, argudiatuko dut akats horiek zilegi diren kezka batzuetatik datozela: erantzun okerrak dira, baina *arazo praktiko berdaderoei*, politikoki ezinbesteko arazoei emandakoak dira, errusiar iraultzaile hark inork baino hobeto bereizten baitzuten horiek besteetatik.

Leninen *Inperialismoaren* lehen akatsa da nolabait *ekoizpen eredu kapitalistaren legeen historizazioa* egiten duela. Marxen Kapitalak kapitalismoaren legeen garapen historikoa deskribatzen duelako aurreiritzia nahiko errotua zegoen garai hartako marxismoan, eta eragina izan zuen Leninen inperialismoaren teorian ere. Hark iradokitzen du kapitalismoaren legeak ondoz ondoko fase edo garai historiko batzuen arabera garatzen doazela. Marxen *Kapitalaren* helburua, aldiz, ez da gizarte kapitalistaren historiako aldi jakin bateko legeak esplizitatzea –lehia askeko kapitalismo liberala, esate baterako–, baizik eta kapitalak dominatzen duen gizarte *oro* gidatzen duten legeak azaltzea, lege horien garapen maila edozein izanik ere ^[23]. Hortaz, Marxen teoriak aurretik aipatutako Roxa Luxenburguren ideiarekin egiten du bat: «inperialismoaren erro ekonomikoak, modu espezifikoko batean, kapital-metaketaren legeetan oinarritzen dira, eta haiekin batera ulertu behar dira».

Bigarren akatsa lehendabizikoaren ondorioa da: lege ezberdinek gidatutako kapitalismoaren fase historikoen artean bereizketa egitearen eraginez, Leninek *bereizi* egiten ditu *lehiaren logika* eta *kontzentrazioarako eta zentralizazioarako joerak*, elkarren artean ezer komunik ez duten fenomenoak bailiran. Horrek kapitalismoaren behe- eta goi-faseen arteko bereizketa abstraktu bat egitera derrigortzen du, eta, beraz, haren ustez, fase batetik bestera, kapitalismoaren oinarritzko legeak erabat desberdinak lirateke. Ondorioz, kapitalismoaren lehen fase gorakor bat egongo litzateke eta aurrerago-ko goi-fase bat, «inperialista» zentzu hertsian, non monopolioak aurretiaz zegoen lehia askearen logika desplazatzen duen. Marxen arabera, aldiz, lehia eta zentralizazioa prozesu dinamiko beraren bi aurpegi dira. Kapitalaren zentralizazioak ez du lehia deuseztatzen, baizik eta areagotu egiten du; era berean, zentralizazioak ez du balioaren legearen indarraldia kolokan jartzen, itxuraz Leninek aditzera ematen duen moduan, baizik eta aurreuposatu egiten du eta aldi berean gauzatu.

Hirugarren akatsa, aurreko biak batzen dituen, obra honetan Leninek formulatzen duen *boterearen kontzeptualizazio defizitarioa* da, eta haren mendekoa da, zuzenki edota zeharka, nazioarteko sozialismoarentzat proposatzen duen planteamendu taktikoa. Leninen arabera, «nazio kapitalista aurreratu bakoitzeko hiru-bost banku handiek “batasun pertsonala” osatu dute kapital industrialaren eta bankarioaren artean»^[24]. Zentzu horretan, monopolioa botere-asimetriaren oinarri izango litzateke, oligarkia finantzarioaren eskuetan erabat kon-

zentratua, eta, haren bidez, magnate talde txiki batek merkatuaren, munduko periferiaren eta Estatuaren zein haren baliabideen kuota handiagoa izango luke modu zuzen eta arbitrarioan. Botere horren bidez oligarkia finantzarioak prezioak ezarri eta superirabaziak erauz ditzake eta, azken buruan, horrek agintari politiko eta sindikalez osatutako proletariotzaren geruza korronpitzea ahalbidetuko dio. Ikuspuntu horren arazoa da ez duela oligarkiaren boterea ekoizpen-eredu kapitalistaren legeen arabera azaltzen, eta hori zen, hain zuzen ere, Luxenburgen xedea haren obra nagusian, akatsak bazituen ere. Ikuspegi horretan, oligarken ekintzek norbanako batzuen borondate abstraktuari erantzuten diete, eta badi-rudi borondate hori ez dagoela metaketa kapitalistaren legeei azpiratuta. Ekintza horien artean sartuko lirateke prezioen ezarpena zein oligarkek beren inbertsioa errentagarri bihurtzeko, Estatuaren baliabideak nahierara erabiltzeko edota proletariotzaren buruzagiak korronpitzeko duten ahalmena. Hortaz, ikuspegi horrek prozesu sozial objektiboetan oinarritutako botere sozial antagonista bat proiektatu eta fin-katzeko aukera zentsuratzen du.

Zentzu hertsian, ezin da Lenin zuzenean akats horien erantzule egin, bera jatorrizko autoreen obretan zeuden moduan erreproduzitzera mugatu baitzen. Hala ere, hiru akatsen atzean dago intuizio edo ikuspegi lauso bat mugimendu historikoaren behar errealean inguruan, zeinaren aurrerapena beti den hein batean itsua eta inprobisazioz betea. Orainaldia iraultzaren ikuspegitik irakurtzen jakiteko gaitasun hori bai aitor dakiokoela Lenini, merezimendu osoz.



Leninen lehen intuizio bertutetsua izan zen kontziente izan zela ezinbestekoa zela *kapitalismo idealaren* eta *kapitalismo errealearen arteko dualismo kautskiarrari* zentzu teoriko batean *eraso egitea*. Leninek ikusi zuen ekoizpen-eredu kapitalistaren lege idealen eta haien bilakaera historikoaren arteko bereizketa abstraktuak Kapitalaren kontraesanak ideologikoki desegitea zekarrela, eta, zentzu horretan, Kapitalarekin eta haren adierazpen biolento eta oldarkorrenekin kontziliazioa errazten zuela; horrek, azken batean, proletariotza aktore independente moduan eratzea oztokatzen zuen. Leninen aburuz Kautskyren irakurketak ekintza iraultzailea *ad infinitum* atzeratzen zuen. Irakurketa hori iraultzaren gaurkotasunaren aurka posizionatzen zen objektiboki.

Leninek uste zuen ekoizpen-eredu kapitalista historikoki kokatuta dauden lege multzo bat bezala ulertu behar zela eta haien joerek gatazka eta antagonismo sozial dinamika bat gordetzen zutela, baina pentsamendu horren jatorria da kezka zuela (zilegizko kezka bat) *metaketa-ziklo konkretu baten baitako klase-harremanen izate zehatza ulertzeko*. Hori da haren bigarren intuizio bertutetsua. Klase-gatazka ez bada ezerezetik sortzen eta ez badator norbanakoen borondate abstraktutik, orduan kointura soziala da eztabaida politikoaren arauak ezartzen dituen. Horregatik da garrantzitsua ekoizpen-eredu kapitalistaren garapen berrienak definitzea. Leninen garaian, hauek ziren garapen horietako batzuk: Estatuak zentzu errepresiboan zuen rola indartzea, ekonomiaren finantzarizazio gero eta handiagoa izatea, monopolioen eraketa eta kolonien zein balorizaziorako egokiak ziren kanpoko lurraldeek betetzen zuten funtzio determinantea. Mugimendu ekonomiko horren gainazalean zeuden langile-mugimendua eta mugimendu sozialdemokrata, haren *parte* izanik, eta mugimendu horien logika garaiko metaketa-zikloa gidatzen zuen logika beretik ulertu behar zen.

Hirugarren intuizioa, aurreko biak funtsatzen dituen, sozialdemokraziaren traizioa eta sozialismoa bi adarretan zatitu izana azaldu beharrean datza. Leninen ustez, Kapitalaren aurkako ofentsiba antolatu bat eratzeko posibilitate-baldintzak lehendabizikoz bazeuzkan eszenatoki bat aztertu behar zen. Nazioarteko Kapitalaren krisiak, gerra inperialista haren sintoma esplizituena izanik, sozialismoaren krisia izan zuen korrelatu, eta krisi horrek (sozialismoaren taktikan eta antolakuntza-formetan gertatu zen) estutasunean jartzen zuen ordu-ra arteko indar-metaketa-eredua. Egonkortasun kapitalistaren zatiketa eta kolapso testuinguru horretan, aukera irekitzen zen hamarkadetan zehar proletariotzak metatutako botere soziala beste gizarte eredu baten eraikuntzaren mesedetara jartzeko. Dena den, alderdi eta sindikatu-tako agente-postuetan babestuta zegoen sozialdemokraziaren frakzio bat oztopatzen ari zen aukera hori, nahita atzera egin zuten-eta gerran zeuden Estatu-mendean. Internazionalismoaren printzipioetan berresteak eta hura praktikoki aplikatzeak, Leninen aburuz, langile-aristokrazia horri kritika gupidagabea egitea eskatzen zuen, oportunismo sozialchauvinistaren sostengu baitzen.

Azken puntu horretan ikusten dira inperialismoaren inguruko debatearen zentzu estrategikoa eta garrantzi historikoa. Leninek dio puntu hori dela «garrantzitsuena garai modernoetako kapitalismoaren forma-aldaketak aztertzen dituen zientzia ekonomikoaren esferan» ^[25]. Baina hori ez da kezka akademiko bat, eta haren xedea ez da ekonomiaren esfera reifikatua: «Bai al da harremanik inperialismoaren eta oportunismoak (sozialchauvinismoaren forman) Europako langile-mugimenduan lortu duen garaipen higuin-garri eta okaztagarriaren artean? Hori al da sozialismo garaikidearen arazo nagusia?» ^[26]. Esan bezala, Leninen erantzuna baieztatzeko borobila da. Hori dela eta, sutsua izan zen ideia honekin: sozialdemokrazia iraultzailearen mundu mailako garaipena erabat saihetsezina da, baina badoa eta joango da, aurrera doa eta aurrera egingo du soilik zuen aurka, zuen aurkako garaipen bat izango da» ^[27], zentroko eta eskuineko oportunistok. Bitxia da, hala dei bada-kioke, Kautskyren figuraren gaineko insistentzia, bere txarrean ez baitzuen erantzun sozialdemokrataren alderdirik txarrena ordezkatzeko –pentsa nola-koa izan zen Ebertek eta Noskek bete zuten rol odoltsua-. Leninek garapen mailarik altueneko jakintza zientifi-



Egungo politikaren ortzimugan gero eta indar handiagoz ageri zaigu iraganean baino askoz ere ondorio zorigaiztokoagoak izango lituzkeen mundu mailako gerra. Eginbehar ukaezin modura ageri zaigu agertoki hori saihesteko gaitasuna duen subjektua berrantolatzeko agindua

koa –Hobsonen, Hilferdingen eta Bujarinen teoria– Kautskyk ordezkaturako sozialdemokraziaren zentroaren aurka mobilizatzeko erabili zuen, hain justu momentu horretan zentroa ari zelako eskuineko adar oportunistarekiko haustura argi eta irmoa saihesten saiatzen. Zentroaren bitartekari funtzioa eta Kautskyren autoritatea etetea zen modu bakarra baldintza politikoak irabazteko nazioarteko proletariotza antolatuaren indarren berreraketarako (momentu hartan autoritate hori Leninena baino handiagoa zen, zalan-tzarik gabe).

Gutxieneko zentzu materialista batean, etsaiari behin betiko kolpea emateko baldintzak zituen *berreraket*a soilik kapitalaren *deskonposizioa* eta gainbehera oinarri izanik gerta zitekeen, hain zuzen, hau da, «hil hurren zen kapitalismo hori» oinarri izanik (gainbeheraren eraginez, hala deitzen zitzaion fase horri). Modu berean, kapitalismoaren agonia eta mugimendu iraultzailearen potentzia antolatua bereizi ezinezkoak ziren –potentzia antolatu hori kapitalismoaren gainbehera historiko objektiboaren kausetako bat zela ulertuta–. Hala azaltzen du Giacomo Marramaok, bere idatzitako marxisten ezaugarri den buru-argitasunez:

«Inperialismo leninistaren kategoria osorik konprenitzeko, garrantzitsua da ulertzea haren *aurrebaldintza* garapenaren joera sozialen interpretazio zehatza dela (joera sozial horien ondo-

rioz, fase berrian proletariotzaren eta burgesiaren arteko indar harremanak aldatu egingo lirateke, lehenbizikoaren mesedetan). Leninen inperialismoaren «teoria» mundu mailako indar-harremanen balorazio horretatik eratorria da eta haren menpekoa da, eta, ondorioz, aurretiaz prestatuta zegoen eredu taktiko-organizatibo batean txertatze-*ra* zetorren: eredu boltxebikean (Leninen teoria horrek askotan bidezko kritikak jaso ditu, baina maiz izan dira abstraktuak, alor zientifiko-ekonomikora mugatu direnez)» [28].

Uneko koiunturaz eta iraultzaren etorkizun hurbilaz gain, Leninen inperialismoaren kontzeptuak funtsezko papera betetzen du sozialismoaren ordura arteko garapen intelektual eta politikoa orainaldiko baldintzetatik interpretatzean, hau da, ia inork aurreikusitako gabe hura kolapsora eramanez zuten arrazoien interpretazioan. Aurretiaz aipatutako inperialismoaren, langile-aristokraziaren eta oportunisten arteko barne-harremanak aukera eman zion Lenini Internazionalaren kolapsoaren inguruko azalpena ortodoxiaren eta errebeisionismoaren arteko debate zaharrera eramateko. Zentzu horretan, Eduard Bernstein izan zen sozialdemokrazian modu ez agerikoan ontzen joan zen prozesu baten lehen sintoma; gero sozialchauvinismoaren eta gerra-politikaren gorapamen esplizituaren forman ateratzen gainazalera.

Egun, ehun urte baino gehiago pasatu ondoren, estrategia iraultzailean modu koherentean txertatutako inperialismoaren kontzeptu teoriko bat izan gabe jarraitzen dugu. Sozialismoaren iragana, oraina eta etorkizuna azalduko dituen narrazio zientifikorik gabe jarraitzen dugu, oro har. Nolanahi ere, egungo politikaren ortzimugan gero eta indar handiagoz ageri zaigu iraganean baino askoz ere ondorio zorigaiztokoagoak izango lituzkeen mundu mailako gerra. Eginbehar ukaezin modura ageri zaigu agertoki hori saihesteko gaitasuna duen subjektua berrantolatzeko agindua, edo, halakorik ezean, subjektu horretan garaipen asmotan interbenitzea. Gerra inperialista gerra iraultzaile bihurtu zenekoa da oraindik, edonola ere, indar emantzipatzaileak aldi baterako garaile ateratzen diren agertoki bakarra. Zentzu horretan, Gerra Handiaren garaiko gainbeheraren eta zatiketa kapitalistaren atmosfera hura inguratu zuten debateek gure orainaldia argitu dezakete agian, orainaldi hau tematua baitago historia errepikatzen lehengo eta oraingo basakeriaren historia fartsa tragiko bat bailitza. Artikulu hau debate horiek aurkeztera mugatzen da: orain irakurleari dagokio haiek ikertzea. ●

ERREFERENTZIAK

[1] C. Marx eta F. Engels, (1981) *Obras escogidas en tres tomos, Editorial Progreso, I liburukia*, Mosku, 404-498 or. (<https://www.marxists.org/espanol/m-e/1850s/brumaire/brum1.htm>).

[2] Inperialismoaren inguruko teoria nagusien errepasoa egiteko, ikus Brewer, A., (1980), *Marxist Theories of Imperialism. A critical survey*, Routledge, Londres.

[3] Marx, K. (2000), *El Capital*, Madril, Akal.

[4] Schorske, C., (1955), *German Social Democracy. 1905-1917. The Development of the Great Schism*, 68. or.

[5] Lenin, V., *El imperialismo y la escisión del socialismo* (<https://www.marxists.org/espanol/lenin/obras/1910s/10-1916.htm>).

[6] Luxemburgo, R., (2003), *Huelga de masas, partido y sindicatos*, Federico Engels Fundazioa, Madril.

[7] Gramsci, A., (1977), *Antología*, Siglo XXI Editores, Madril, 419. or.

[8] Luxemburgo, R., (2003), *Reforma o revolución*, Federico Engels Fundazioa, Madril.

[9] Luxemburgo, R., (1967), *La acumulación del capital*, Grijalbo, S.A., Mexiko Hiria.

[10] Luxemburgo, R., (2014), *La acumulación del capital o en qué han convertido los epígonos la teoría de Marx. Crítica de las Críticas*, Omegalfa liburutegi birtuala.

[11] Rosdolsky, R., (2023), *Sobre la génesis de 'El capital' de Marx*, Ediciones Dos Cuadrados, Madril.

[12] Hobson, J., (2020), *El estudio del imperialismo*, Titivillus.

[13] Hilferding, R., (1963), *El capital financiero*, Editorial Tecnos, Madril.

[14] Bujarin, N., (1971), *El imperialismo y la economía mundial*, Ediciones Pasado y Presente, Buenos Aires.

[15] Lenin, V., (2012), *Imperialismo: fase superior del capitalismo*, Santillana Ediciones Generales, Madril.

[16] Stalin, J., (2002), *Los fundamentos del leninismo*, (<https://www.marxists.org/espanol/stalin/1920s/fundam/index.htm>).

[17] Hilferding, R., (1963), *El capital financiero*, Editorial Tecnos, Madril, 9. or.

[18] En Defensa del Marxismo (Buenos Aires), 37, 51-82 or., Partido Obrero (<https://www.prensaobrera.com/publicaciones/verNotaRevistaTeorica/37/capital-financiero-y-crisis>).

[19] Sanjuán, C., (2019), *Historia y sistema en Marx. Hacia una teoría crítica del capitalismo*, Siglo XXI, Madril.

[20] Hilferding, R., (1963), *El capital financiero*, Editorial Tecnos, Madril, 362. or.

[21] Idem, 375. or.

[22] Kautsky, K., (2018), *El camino del poder*, Alejandría Proletaria, Valencia.

[23] Marx, K. (2000), *El Capital*, Madrid, Akal, 17. or.

[24] Lenin, V., (2012), *Imperialismo: fase superior del capitalismo*, Santillana Ediciones Generales, Madrid, 169. or.

[25] Bujarin, N., (1971), *El imperialismo y la economía mundial*, Ediciones Pasado y Presente, Buenos Aires.

[26] Lenin, V. *El imperialismo y la escisión del socialismo* (<https://www.marxists.org/espanol/lenin/obras/1910s/10-1916.htm>).

[27] Idem.

[28] Marramao, G., (1981), Teoría del derrumbe y capitalismo organizado en las discusiones del “extremismo histórico”, 261. or., in Telò M. (Ed), *La crisis del capitalismo en los años 20*, (257-300).

INPERIALISMOA ETA KLASE BORROKA

Ukrainako gerrari buruzko oharrak

Testua — **Pablo C. Ruiz**

Irudia — **Zoe Martikorena**





Minervak, Greziako jakinduriaren eta ulermenaren jainkosaren hontzak, eguna bukatzean bere mezua dakarren modu berean, gerraren atzeko arrazoi ekonomikoak laztura lehertu denean soilik bilakatzen dira ulergarri. Proletariotzaren odolaren gainean zabaltzen den ekonomia politikoak gerraren izaera klasista argitara ateratzen du; finean, gerra lehen soldadua errekrutatu baino askoz lehenago hasi zen.

Pentsamendu burgesak modu ideologikoan bereizten du estatuen jardun politikoa testuinguru ekonomikotik, eta bi esfera horiek beregainak direla eta gerrarako arrazoi bereiziak dituztela azaltzen du. Ez da harritzekoa kapitalaren hedabideetako komentaristek Errusiako presidentearen, Putinen, handinahikerian kokatu izana inbasioaren funtsezko arrazoia. Iraultzaileen analisiak, ordea, klase borrokaren garapenaren une immanente gisa ulertzen ditu gerra eta haren jatorria. Gerra pizten duten «txinpartak» nazioarteko klase gatazkaren ondorio direla argitzen du eta gerraren garapena aztertzen du, gerra ekoizpen-modu kapitalistaren barne kontraesanak gordintzearen ondorio moduan ulertuta. Hori dela eta, gerra, klase borrokaren momentu den heinean, politikan esku hartzeko espazioa da proletariotza iraultzailearentzat. Hala, artikulatu honen helburua da Ukrainako gerra ekonomia politikoaren kritikaren parametroetan kokatzea, haren aurretiazko analisi bat artikulatzeko xedez, programa komunistaren konpromiso historikoari –programa politikoa nazioartean gauzatzeari– argi egite aldera.

LEHIA, LURRALDEA ETA BALORIZAZIOA

Merkatuaren boterea ekoizpen modu kapitalistaren printzipio materialik garrantzitsuenean datza: ekoizleen eta ekoizpen bitartekoen arteko bereizketa. Hala, gizarte kapitalistaren erreprodukzio materialak klase borrokan aurkitzen du existitzeko bere oinarritzko modua, eta ekonomian, berriz, borroka horren manifestazio besterendua. Ekoizpen kapitalista artikulatzen duen funtsezko printzipio ekonomikoa lehia da. Ekoizpen orokorra jabetza pribatuaren erregimenpean atomizatuta dagoen heinean, lehia bihurtzen da ekoizpen unitateen arteko harremanen forma naturala. Harreman horrek zenbait pautara arautzen ditu; enpresa kapitalistek pautara horiei jarraitu behar diete beren biziraupena bermatu nahi badute. Era horretan, merkatuaren legeak gure gizartearen ekoizpen jarduna zehazten duen legeria ikusezin gisa altxatzen dira, bai eta mugimendu ekonomikoa kapitalista ulertzea ahalbidetzen duen marko gisa ere.

**Iraultzaileen
analisiak, ordea,
klase borrokaren
garapenaren une
immanente gisa
ulertzen ditu gerra
eta haren jatorria.
Gerra pizten duten
«txinpartak»
nazioarteko klase
gatazkaren ondorio
direla argitzen
du eta gerraren
garapena aztertzen
du, gerra ekoizpen-
modu kapitalistaren
barne kontraesanak
gordintzearen ondorio
moduan ulertuta**

Ekoizpena muga nazionaletatik haratago hedatzea klase kapitalisten kontraesanak behin-behinean indargabetzeko beste modu bat da. Kapitalismoaren historian, irabaziak atzerriko lurraldeetan gauzatzeak kapital pribatuei aukera eman die lehiak ezarritako zailtasunak konpentsatzeko, baita errendimendu ekonomikoak eskuratzeko ere; hain zuzen ere, hortik dator kapitalaren izaera espantsiboa

Arau orokor gisa, enpresa kapitalistak bi modu hauetan lehiatzen dira ekonomikoki: alde batetik, merkataritzari dagokion alderdian, prezioa irabaziak bermatzeko bezain altua baina lehiakorra izateko bezain baxua izan behar baita; beste alde batetik, finantzei dagokien alderdian, negozioan egindako inbertsioak behar besteko irabaziak eragin behar baititu kapitala baliabide monetarioak mobilizatzeraz motibatuzko. Lehia harreman bikoitz horrek burgesiaren klase barruko gatazken bi une dakartza eta, aldi berean, ekoizpen prozesuen teknifikazioa bilatzen duen bulkada mutu bat eragiten du. Hain zuzen ere, bulkada horrek ahalbidetu du, besteak beste, ekoizpen indar sozialen egungo garapena eta zientziaren aurrerapena –zientzia belikoa-ri dagokiona aurrerapena ere, noski-. Klase borroka kapitalista oinarri daukan ezagutzaren hedapen horren beste aldean lehiak errentagarritasun maila orokorraren gainean ezartzen duen beheranzko presioa genuke^[1]. Kapitalak, lehian duen posizioa hobetze aldera, lan bizia ekoizpen prozesuetatik desplazatzen duenean, kapitalaren konposizio organiko txikiagoak gainbalio erlatiboaren ekoizpena murrizteko joera dauka eta irabazi tasa deprimitzen du –halaxe frogatu zuen Marxek-. Joera bat da, kapitalak zenbait ofentsiba mekanismo dituelako proletariotzaren gainean erabiltzeko eta, era horre-





tan, tasaren erorketa arindu eta –aldi baterako bada ere– kapitalaren eta lanaren arteko kontraesanen gogortzea eteteko. Marxek *Kapitala* liburuan aintzat hartzen dituen faktore indargetzaile guztien arte-
tik, klase borrokarekin modu intuitiboan lotzen errazena hauek dira: lanaldiaren intentsifikazioa eta luzapena ^[2] eta gainpopulazio erlatiboaren maila jakin bat mantentzea, eskulanaren kostua murriztea ahalbidetuko duena ^[3]. Lanaren karga sozialaren areagotzea karga horri eusten dioten langile kopuruarekiko alderantziz proportzionala da.

Hala ere, ekoizpena muga nazionaletatik har-
rargo hedatzea klase kapitalisten kontraesanak behin-behinean indargabetzeko beste modu bat da. Kapitalismoaren historian, irabaziak atzerriko lurraldeetan gauzatzeak kapital pribatuei aukera eman die lehiak ezarritako zailtasunak konpen-
tsatzeko, baita errendimendu ekonomikoak eskura-
tzeko ere; hain zuzen ere, hortik dator kapitalaren izaera espantsiboa. Era horretan, kapitala «gizarte burgesean dena dominatzen duen potentzia ekono-
miko» ^[4] bilakatzeko prozesu bat dator, ezinbes-
tean, mundu mailako merkatuaren eratzearekin. Zentroaren eta periferiaren arteko harreman dia-
lektikoak, lanaren nazioarteko banaketa egitura-
tzen duenak, espazioak ekoizpen modu kapitalistan duen dimentsio ekonomikoa argitara ekartzen du, era horretan egikaritzen baita metaketaren izaera globala. Lurraldea lehian dagoen kapitala balori-
zatzeko espazio gisa eratzten da. Merkataritzaren hedapenak aukera ematen du gainmetaketarako joera naturalaren eraginezko kapital soberakinari aterabidea emateko. Atzerriko inbertsioen bidezko sarbide ekonomikorako baldintza da lurraldearen dominazio politikoa; hala, ikus daiteke estatuek beren eragin politikoa areagotzeko duten interesa klase-ekonomiaren arloko auzia dela. Eta, finean, gerra da kapital globalaren fakzio batek bere bo-
terea mugez gaindi hedatzeko duen bitarteko bat.

Hala ere, ez dirudi Ukrainaren lehen sektoreko baliabideak, industria sektoreak edo kontsumitze-
ko gaitasuna behar bezain erakargarriak direnik hain kostu militar eta ekonomiko handia izango lukeen gerra interinperialista bat pizteko ^[5] –ba-
teze ere kontuan hartuta inbasioaren aurretik izan-
dako pandemiak metaketa kapitalista globalari eragin zion kolpe gogorra–. Horrek zaildu egiten du gerraren karakterizazio ekonomikoa eta gerra komertzialei loturiko eskema klasikotik haratago doazen kategoriak erabiltzera behartzen gaitu. Ha-
la, beharrezkoa da honako galdera hau egitea: zein da kapitalismoaren egiturazko mugen eta Ukraina-
ko gerraren arteko lotura?

GERRAREN IZAERA KLASISTA

2022ko otsailaren 24an Errusiak Ukraina inbaditu izana nazioarteko klase borrokaren ezinbesteko emaitza da. Ukrainako gerra garapen historikoaren helmuga saihetsezin gisa azaldu nahi izatetik urrun, gerra horren ezinbestekotasuna hura posible bilakatzen duen marko sozialaren bitartez adierazten da: kapitalaren eta lanaren arteko gatazka globalaren bidez, alegia. Gerrarako arrazoiak –hau da, *haren izaera*– eta zabalpena ikusgarri egiten dira, bakarrik kritika marxistaren kategoria markoaren bitartez aztertzen dugunean. Horrek gerraren errealitate gordinaren gaineko hausnarketa abstraktu eta axolagabea dakarrela irudi lezakeen arren, urrats hori egitea ezinbestekoa da politizismoaren eta ekonomizismoaren bekatu-bikotean ez erortzeko. Gerraren arrazoiak ez daude Putinen apeta inperialistan, ez eta Estatu Batuetako enpresa transnazionalen lukurreria predatzailean. Kontrara, ezinbestekoa da klase borrokaren garapena lubakiaren bi aldeetan aztertzea, maila globalean artikulatutako borroka baten momentu nazionalizat hartuta; horrela ulertu ahalko dugu gerraren egoera gizarte gatazka zehatz baten emaitza gisa, eta horrela dezifratuko dugu «gerrak herrialde barruko klase borrokarekin lotzen dituen ezinbesteko haria»^[6]. Ideia horri ñabardura batzuk egin eta nahasmenak saiheste aldera, esan beharra dago kontua ez dela aldebakarrez baieztatzea kapitalismo globalaren kontraesanek –edo horien adierazle diren blokeen arteko tentsioek– ezinbestean eragin dutela Ukrainako gerra. Hausnarketak kontrako bidea egin behar du; hala, gertatutakoa egungo baldintzetatik abiatuta ulertu behar du. Era horretan, gatazkari maskara kendu eta atzeko klase borroka ikusi ahal izango da, baina aurretik idatzitako patua balitz bezala interpretatu gabe. Gizarte antolakuntza kapitalistaren izaera kontraesankorrean datza gerraren izaera bera; ondorioz, gerra inperialistari egin beharreko kritika Errusiako eta Ukrainako proletariotzak haren ondorioz pairatzen duen hondamendi belikoa klase-borrokaaren mar-koan egin behar da.



Gerraren arrazoiak ez daude Putinen apeta inperialistan, ez eta Estatu Batuetako enpresa transnazionalen lukurreria predatzailean. Kontrara, ezinbestekoa da klase borrokaren garapena lubakiaren bi aldeetan aztertzea, maila globalean artikulatutako borroka baten momentu nazionalizat hartuta; horrela ulertu ahalko dugu gerraren egoera gizarte gatazka zehatz baten emaitza gisa



Gizarte antolakuntza kapitalistaren izaera kontraesankorrean datza gerraren izaera bera; ondorioz, gerra inperialistari egin beharreko kritika Errusiako eta Ukrainako proletariotzak haren ondorioz pairatzen duen hondamendi belikoa klase-borrokaren markoan egin behar da

Estatu Batuek zuzendutako Mendebaldeko blokean, klase borrokak gero eta zailtasun handiagoak jarri zizkion kapitalari 1970eko hamarkadatik aurrera, nagusiki metaketaren geldialdi sekularrari lotuak. Garai horren ezaugarri nagusietako bat azalpen handiagorik behar ez duen eta honako hiru puntu orokor hauetan laburbil daitekeen literatura ekonomiko marxista da: Mendebaldeko kapitalaren ezintasuna ekonomia nazionalerako hazkunde tasak areagotzeko, ekoizpen ehunaren errentagarritasunaren beherakada, eta metaketaren forma finantzarioaren hedapena. Mendebaldeko botere blokea osatzen duten estatuek –emaitza laburreko-berebiziko ahaleginak egin dituzte gainmetaketaren arazoak saihesteko, izan lan eta zerga arloko arauak egokituta soldata irabazietara berbidertzeko beharrera, izan inbertsioaren kostu finantzarioak murriztuko zituen eta kapitalaren metaketa artifizialki estimulatuko zuen politika monetario ez konbentzionala diseinatuta. Hala ere –eta pandemiak eragindako kolpe ekonomikoa «kanpokotzat» joz modu iruzurtian–, edozein analisi zintzok onartu beharko luke politika horiek porrot egin dutela benetan integratzailea den zibilizazio ordena bat berriaz egituratzeko, gerraosteko garaian izan zen moduan ^[7].

Mendebaldeko blokearen ekonomia nazionalerako akumulaziorako muga gero eta esplizituagoek eta estatuek muga horiek gainditzeko duten ezintasunak –nahiz eta erreforma handiak eta proletariotzaren kontrako gehiengoak eraiki– NATOren hedapen militarren azpinarrazioa fundatzen dute. Herrialdeak etengabe Aliantza Atlantikoan integrazteak gako inperialista bikoitza dauka. Alde batetik, blokeari eta bertako potentzia hegemonikoei laguntzen die haien kapitalen eragin ekonomikoa handitzen, lurralde berrien txertatze ekonomikoa bitartez; beste alde batetik, integrazio horrek aukera ematen du eragin politiko eta militarra hedatzeko kooperatzeko borondaterik ez duten estatuen aurrean. Beraz, Ukrainaren integrazioaren faltan, Aliantza Atlantikoaren bukaera eta pazifismo liberalaren garaipena iragartzen zuen Sobietar Batasunaren desegitetik, NATOk 14 herrialde integratu ditu; hala, 30 herrialdek osatzen dute gaur egun, munduko 10 ekonomia handienetatik 6 barne hartuta. Hedapenaren klase izaera argia da: gero eta indartsuagoak diren base militarren hesi bat eraikitzea, Mendebaldeko enpresak mundu mailako merkatuan ekonomikoki gara daitezen bermatzeko eta, hala, lurralde nazional bakoitzean klase kapitalistaren boterea indartzeko. Maila nazionalerako barne domestikazioa ez da kapitalaren ekoizpenaren eta merkataritza hedatzearen nahi gabeko ondorioa, baizik eta balorizazio ekonomikorako zailtasunekin batera sortzen den beharrian bat.

KOLABORAZIOA — Inperialismoa eta klase borroka. Ukrainako gerrari buruzko oharrak



Hori horrela, akatsa litzateke enpresa lehia eta klase-dominazio bertikala bereiztea, klase barruko eta klase arteko kontraesanak autonomoki erreproduzituko balira bezala. Izan ere, biak hala biak kapitalaren eta lanaren arteko gatazkaren adierazle dira. Enpresa transnazionalen eragin ekonomikoaren eremua hedatzeak aukera ematen du balio-katean balio erantsi handiagoa duten jarduerak nazioan mantentzeko, atzerriko eskulana esplotatzetik lortutako gainbalioa inportatzeko edo beste lurralde batzuek eskaintzen duten zerga salbuespenaren bitartez zerga erregimen nahiko progresistak mantentzeko, bai eta kontrol sozialaren industria ekonomikoki garatu edo estatu bortitzaren kultura normalizatzeko ere. Azken finean, aurrerantz ihes egiteko aukera ematen du; izan ere, mugimendu horrek edozein jarduera kapitalistak, bere izaera dela eta, lurraldea edozein delarik ere (erre)produzitzen dituen mugak espazialki lekualdatu besterik ez du egiten.

Errusian kapitalismoa berrezartzeak botere borroka bat abiarazi zuen kapitalaren fakzio desberdinen artean pobretze orokorrak suntsitutako herrialde batean. Erakunde marko ahulak, ekoizpen ehun zaharkituak eta antolatu gabeko langile mugimenduak lur ezin emankorra sortu zuten botere ekonomiko kapitalista loratzeko. Azken hamarkadetan, Errusiako Estatuan hauek gobernetu dute: agerraldiak normalean mozkortuta egiten zituen gizon batek –Boris Yeltsin, kontrairaultzaren eta merkatu erreformaren irudia– eta KGBko agente ohi batek, azken 24 urteetatik Estatuaren buruzagitza soilik 4 urtez utzi duena –hain zuzen ere, lehen ministro postua betetzeko–. 2001eko Alderdi Legearen bertsio desberdinek –zeinek protestak eta errepresioa eragin dituzten– eskaintzen dituzten bermeak, boterea sistematikoki Estatu zentralean kontzentratzeko 1999 aurretik nagusi zen erregionalismoaren aldean, oso ondo ordaindutako botere judizialaren ustelkeria hedatuak eta Errusiako zigor kodeak jasotzen dituen lege errepresiboen multzoak (atxiloketak lotsagabeki ugaritzea ekarri dutenak) distantzia erlatibo bat markatzen dute Mendebaldeko administrazioen aldean. Distantzia hori erlatiboa da ordena kapitalista eratzen duten elementu guztiak –dominazio ekonomikoa, errepresio politikoa, autoritarismo legala, pobretzerako joera– intentsitate handiagoarekin erreproduzitzen direlako Errusian. Lurralde nazionalen izandako klase borrokaren urte luzeen ondorio da hori.

Errusiako proletariotzaren azpiratzeak hartu duen forma konkretua petrolioari eta gasari loturiko kapitalen –Gazprom, Lukoil, Rosneft– garaipen politikoa izan da; izan ere, Errusiak mundu mailako merkatuan kokatzeko behar zuen agintaria aurkitu dute Putin presidentearengan. Are gehiago, herrialdeko enpresa nagusietako bakarra aritzen da finantzen sektorean, zehazki Sberbank enpresa. Enpresa hori Errusiako Banku zentralak sortu zuen, eta orain banku horrek partaidetza du bertan; 1999an Sberbank banku lehena bihurtu zen, hain zuzen ere energia enpresetan zuen inbertsio zorroa ia hirukoiztu zuen urtean, Putinen presidentetzaren lehenengo urtean hain zuzen. Errusian, botere burgesaren artikulazioak printzipio ekonomiko kapitalisten egokitzapen «iliberal» bat behar izan du metaketa erregimen egonkor bat eraiki ahal izateko –horretarako ezinbesteko baldintza izanik proletariotza nazionalaren azpiratzea–, bai eta botere ekonomikoen eta estatu botereen arteko harilkatze praktikoki ustel bat ere. Hori dena gorabehera, Errusiak ez zuen inoiz lortu Mendebaldeko potentzia nagusien estandar ekonomikoetara iristea. Energia merkatuetan zuen posizio onak harreman sendoa finkatu zuen Estatu gidatzen zuen presio taldearen eta Mendebaldeko kapitalaren ordezkari politiko nagusien artean, hala nola Angela Merkel, José María Aznar, Tony Blair, Silvio Berlusconi, Emmanuel Macron eta are Bill Clinton edo Barack Obama, interes txikiagoarekin bada ere. Errusiako kapitala lanaren nazioarteko banaketan integratu zen, Europaren lankidetzan estuarekin. Errusiako Estatuak, Putinen inguruan eraikia, desabantaila militarreko posizioan zegoela onartu zuen eta NATO hedatzeko muga bere herrialde mugakideetan finkatu behar izan zuen. Errusia Mendebaldearekin lankidetzan aritzen zen (nahiz eta ekonomikoki integratu ez) NATOren blokea etengabe hedatzen zen bitartean. Egoera hori itxuraz kontraesankorra bada ere, ondo islatzen du nazioarteko harreman kapitalisten izaera gobernaezina.

Errusiako proletariotzaren azpiratzeak hartu duen forma konkretua petrolioari eta gasari loturiko kapitalen garaipen politikoa izan da; izan ere, Errusiak mundu mailako merkatuan kokatzeko behar zuen agintaria aurkitu dute Putin presidentearengan

ESTATUA, GLOBALIZAZIOA ETA GERRA INPERIALISTA

Estatua zer da? Kapitalaren boterearen komisio politikoa. Estatuaren izaera belikoa klase egitura gisa ulertzen denean soilik ateratzen da argitara. Estatuaren gerra ez da agintarien gehiegikeria bat; aitzitik, burgesiaren botere politiko eta ekonomikoa indartzeko funtsezko mekanismoetako bat da. Estatuaren existentziak osatu egiten du klase kapitalistaren dominazioaren hedapena, zeina ezin daitekeen haren adierazpen ekonomikora mugatu: erakunde politikoen eta ekonomikoen uztarduran bat eginik baizik. Biek ala biek, aldi berean, proletariotzaren azpiratzea erreproduzitzen dute. Ondorioz, biak ulertu behar dira klase harreman kapitalistaren beharrezko adierazpen gisa. Kapitalaren balorizazio ekonomikoa, klase dominazio gisa, iristen ez den lekuetan *agertzen da* Estatu kapitalista^[8]. Gainbalioa ekoizteko zirkuituek beren kabuz bermatu ezin dituzten hainbat funtzio betetzen dituzte. Funtzio horiek era honetan laburbil litezke: funtzio errepresiboak, funtzio ekonomikoak eta funtzio belikoak. Kritika iraultzaileren zeregina da Estatuaren funtzio horiek guztiak –Engelsen hitzetan^[9]– *kapitalista kolektiboaren* jarduera gisa azaltzea, zeinen helburu bakarra kapitalaren boterea indartzea besterik ez baita, errepresioa eta gerra gehiegikeria gisa edo Estatuaren jardun ekonomikoa kapitalaren eta lanaren arteko bizikidetzaren harmoniatsua gisa azaltzen dena; ilusio ideologikoa da baina, ez besterik.

Metaketa kapitalista globala da edukian, baina nazionala forman^[10]. Era horretan, estatu nazio kapitalistak, funtsean aurreko estatuak ez bezalakoak direnak, proletariotza nazionala erreprimitzeko berme gisa ageri da historian, baina baita kapitala hedatzeko tresna gisa ere. Zentzu horretan, Clausewitz-en ideia, zeinak esaten duen «gerra beste bi-tarteko batzuen bidezko politika» dela, birformulatu egin liteke, argudiatuta gerra beste bitarteko batzuen bidezko lehia dela. Hori dela eta, estatuen arteko elkartzea, loteslea denean eta merkataritza trukerako, politika ekonomikorako edo interbenzio militar bateraturako espazio komunak sortzen dituenen, beti da iraungitze data duen elkartze bat. Kredituak gehiegizko ekoizpenak zehazten duena artifizialki atzeratzen duen modu berean, estatuen arteko elkartzeak behin-behinean ezkutatatu egiten du gizartean duten posizioa zehazten duen hori. Beste modu batera esateko, Grossman-en hitzen arabera, «estatuaren arteko antagonismo inperialistek haien arteko harremanen bitartez ere irauten dute»^[11].

Estatuaren elkartzeak elikatu egiten du burgesiaren fikzio pazifista, zeinaren arabera gerra ekidin litekeen gaitz bat den, irakaspenak ekarri dizkigun iraganeko emaitza penagarri bat. Hala ere, ezein kasutan ez ditu estatu arteko harremanen oinarri klasistak gainditzen, ezin duelako. Bakea borondate politiko kontua dela dioen tesia guztiz baliagarria zaio dominazio burgesari: gauzen egungo egoera naturalizatu eta gerra gehiegikeria gisa azaltzeko aukera ematen du eta, ondorioz, kritikarako aukera oro deuseztatzen du. Globalizazioa zera izan zen: konkistatutako bakearen eta mundu osoko nazioen



**Txinak denbora
darama edozein
ekonomia kapitalistari
berezko zaizkion
arazo ekonomiko
nagusiak pairatzen
(gehiegizko metaketa,
espekulazio burbuilak,
langabezia...) eta
Errusia bere bazkide
energetiko nagusia
galtzen ari da**

eta estatuen arteko anaitasunaren korrelatua; merkataritza- eta finantza-zirkuituak nazioartekotzeko prozesu sozial bat, Estatu Batuak buru zituena eta aukerak handitu zituena kapitala balorizatze-ko, proletariotzaren kontrako ofentsiba ekonomiko eta politikoa gordintzeko eta Mendebaldeko esferan erakunde esparru erraldoiak eraikitzeko, hala nola NATO, Europar Batasuna, Merkataritza Askerako Itunak, Europako Banku Zentrala, Munduko Bankua edo Nazioarteko Diru Funtza. Egitura eta legedien sare oso horrek Mendebaldeko kapitalari aukera eman dio posizioa hobetzeko nazioarteko merkatuetan, estatuen eragin politiko eta militarra hedatzeko eta bakoitzak lurralde nazionalen duen boterea indartzeko.

Estatu elkarteen multzoa, batez ere Europan, ezin azal daiteke soilik Estatu Batuek subiranotasun nazionala bahitu dutela esanez, Europako chauvinista ugari defendatzen duten eran. Europako ekonomien lehiazeko gaitasunen rolak berebiziko garrantzia dauka. Europako kapitalen elkartze politikoa funtsezkoa izan da azken hamarkadetan Europar Batasuneko ekonomiak munduko merkatuan txertatzeko. Hortik eratoritzen da, ondorio praktikoetarako, Europar Batasunak herrialde bakar bat balitz bezala funtzionatzen duela, hura osatzen duten estatu kideen moneta politika modu zuzen eta antidemokratikoan finkatzen du Banku Zentralaren bitartez, gomendio lotesle gisa ezarritzerga politika edo are zorpetze bateraturako tresna garatzen hasiz^[12].

Alabaina, globalizazioak bizkortu egin zuen ekoizpen kapitalistaren garapen eta konsolidazio prozesua gaur-gaurkoz munduko balorizazio polarik nagusienetako bat bilakatu den herrialdean: Txinan^[13]. Txinaren botere kapitalista nazioarteko eskalan eraikitzeak zerikusia izan du Mendebaldeko kapitalen eta haien aliatuen kapitalaren hedatze prozesuan. Paradoxikoa badirudi ere, Txinaren garapen kapitalistak rol erabakigarria izan du Mendebaldeko finantza oligarkiaren boterearen hedapenean^[14]. Txinan ekoiztutako gainbalio kantitate handiak aukera eman die Estatu Batuei hainbat hamarkadaz beren zorra finantzatzeko. Txina *munduaren fabrika* bilakatu izana pizgarria izan da Mendebaldeak eskualdearekin duen merkataritza eta, gainera, balio erantsi handiko industria espezializaziorako baldintzak sortu ditu Estatu Batuetan, Frantzian, Alemanian, Japonian eta beste herrialde batzuetan. Argi ikus daiteke Marxek esaten zuena: «gizarte burges moderno mago bat bezalakoa da [...] berak sorginkeria bidez sortutako lur azpiko potentziak kontrolatzeko gai ez den mago»^[15]. Hala, beharrezkoa da munduko merkata nazioarteko ekoizpen harreman kapitalisten egituratze gisa ulertzea, eta ez kapitalismo nazional independenteen batura gisa.

«Lur azpiko potentziak» jada zabaldua daude mundu osoan. Haien kontraesanak dira gizarte osoa zuzentzen dutenak. Zapaldu guztien arteko alienazio-lotura bat eratzen dute, eta ondorioek guztioi eragiten digute neurri berean. Kongoko Errepublikan, El Salvadorren edo Ukrainan gertatzen direnen ustezko edo itxurazko deskonexioa, azken finean, metaketa globalaren adierazpen nazionalaren eta kapitalaren eraketa politikoaren artean lehiatzen diren estatuetan (edo makroestatuetan) antolatzearen ondorio da. Emantzipaziorako beharrezkoa den marko politikoa behartuta dago haratago begiratzera eta nazionalismoaren ikuspegiitsuak ezkutatu nahi digun hori deskubritzera: ekoizpen-harreman kapitalistak direla gure bizitza sozialaren funtsa.

Globalizazioan eta merkatuaren etengabeko hazkundean oinarritutako nazioarteko hazkunde eredua agortzeak intentsifikatu egin ditu nazioarteko harreman kapitalisten berezko kontraesanak; horrek, blokeen arteko bake komertziala fagozitateaz gain, Aliantza Atlantikoaren barne kohesioa ere suntsitu du. Roosvelten idealismoa gerraostean mundu mailako gobernu bat finkatzen saiatu zen; ordea, Trumanen errealismoak bidetik kendu zituen asmo horiek^[16]. Gaur egun Ipar Amerikaren hegemonia proiektua, zeinak antikomunismoa baitzuen oinarri, arrakalatzan hasi da. Zenbait hamarkadatan izandako lanaren nazioarteko banaketak itxuraz ahalbidetu zuen guztiontzako kafearen eredua agortzen ari da. Estatu Batuak eta Europar Batasuna inbertsio publikoko programa handiak onesten ari dira, beren ekonomiak berriz industrializatzeko; aldi berean, Txinak denbora darama edozein ekonomia kapitalistari berezko zaizkion arazo ekonomiko nagusiak pairatzen (gehiegizko metaketa, espekulazio burbuilak, langabezia, desberdinkeria, etab.) eta Errusia –ekonomikoki ahula aspalditik– bere bazkide energetiko nagusia galtzen ari da (nahiz eta badirudien beste merkatu batzuetara bideratuta konpentsatu ahalko duela).

Egun, gerra komertzialak errealtate normalizatuak dira eta protekzionismoa politika nazional gisa ezarri da merkatu librearen zalantza jartzea bekatzat hartzen zen lekuetan. Monetarismoak eta neoliberalismoak bidea utzi diote neokeynesianismoari; joera horrek, *posible da* tesia berrestetik urrun, argi erakusten dute esku-hartze publikoaren rola kapitalaren boterearen bermatzaile gisa. Ez da kasualitatea merkataritza tentsioen atzetik finantzaketa publikoaren aurrerapausoak gertatzea; izan ere, balorizaziorako zailtasunen adierazle baino ez dira. Mundu mailako merkatuaren estutasuna ez dago trukerako espazioaren dimentsio geografikoaren mende, baizik eta merkatuaren oinarri klasista^[17] berberen mende –Leninek Luxemburgi gogoraziko zion eran–; hau da, kapitalak gehiegi ekoizteko duen berezko joeraren^[18] ondorioz, kapitalak eta haien estatuak behartuta daude «metodo normalek» (István Mészárosen hitzetan) lortzen ez dutena beste bide batzuen bitartez lortzen saiatzera^[19]. Hala, gerra inperialista (estatuak aldi berean urratsak egitea proletariotza nazionalaren eta atzerri-tarraren gainean) azken konponbide gisa agertzen da, kostu altua duen baina sozialki beharrezkoa den konponbide gisa, merkataritza dinamika «normalek» prezioaren eta lehiaren bitartez antolatu ezin dutena berriz antolatu ahal izateko.

Hala, gerra inperialista (estatuak aldi berean urratsak egitea proletariotza nazionalaren eta atzerritarraren gainean) azken konponbide gisa agertzen da, kostu altua duen baina sozialki beharrezkoa den konponbide gisa, merkataritza dinamika «normalek» prezioaren eta lehiaren bitartez antolatu ezin dutena berriz antolatu ahal izateko



PROXY GERRA

2012. urtean, Ukrainako Gobernuak negozioak hasi zituen Europar Batasunarekin progresiboki batasun horretan sartzeko, Nazioarteko Diru Funtsek kudeatutako kreditu baten truke, Ukrainako industria ehunak nazioarteko merkatuan zuen lehia posizioa hobetzeko eta herrialdearen egoera ekonomiko benetan prekariora leuntzeko. Handik urtebetera, akordioa sinatu aurreko egunean, Ukrainako Gobernuak bertan behera utzi zuen hura, argudiatuta eskainitako zifra (600 milioi euro), «umiliagarria» zela^[20]. Hurrengo egunean, Kieveko Independentzia Plazan protestak hasi ziren (Euromaidana), Eskuin Sektorea eta Svodoba antolakunde faxistek koordinatuta; protesta horiek Gobernuko presidenteak herrialdetik alde egitea eta 2014an herrialdeko indar erreakzionarioen boterea hartzea eragin zuten. Urte horretan bertan gerra hasi zen Donbassen Kieveko Gobernuaren eta Errusiaren babesa zuten Ukraina ekialdeko eskualde armaden artean, eta,aldi berean, Errusiako Estatuak Krimea anexionatu zuen. Delegazio gerra edo proxy gerra izenez ezagutzen dena hasi zen; hau da, Mendebaldeko eta Errusiako oligarkia finantzarioak Ukrainako lurraldeen kontrola bereganatzen saiatzen ziren armada ezberdinak finantzatuta. Gatazka luze horrek milaka pertsonaren bizitzak eraman ditu eta bereziki gogor kolpatu ditu Luhansk eta Donetsk. Gerra Errusiak Ukrainako lurraldea inbaditu zuen egunean bertan bukatu zen, NATOk babestutako Ukrainaren eta Errusiako armadaren arteko gerra irekia hasi baitzen.

Ukrainaren ekialdeko «herri errepublikak» askatzeko aitzakiapean, Errusiako armadak, inbasioaren bitartez, NATOren base militarrek bere mugetatik hurbil ezartzeko aukera oro deuseztatu du. Errusiar kapital dominatzaileak, Putinek nazioa eta familia faxistizatze emandako diskurtsoaren bultzadarekin, Errusiaren posizio ekonomikoaren eta boterearen aurkako mehatxu gisa ikusten du Aliantza Atlantikoaren hedatze militarra, arrazoi osoz ikusi ere, gainera. Estatu Batuak buru dituen NATOrentzat, Txina bolumen txikiagoa duten baina, era berean, herrialde horren eragina mundu mailan eta merkatu berrietara etengabe zabaltzeko eta handitzeko duen gaitasuna mehatxua da. Mehatxuaren mailak ezartzen du hasierako ekin-tza belikoa. Estatu Batuetako burokratek badakite gaur-gaurkoz Txina ez dela gai Estatu Batuekin lehiatzeko arlo komertzialean, monetarioan edo militarrean, ez eta eragin politiko zein kulturalaren arloan ere –eta are gutxiago Errusia–. Hala ere, badakite azken urteetan Txinaren boterea handitzen

hasi dela Estatu Batuen interesen kontra. Adierazgarria da onartu berri den Segurtasun Nazionalaren Estrategiak, Biden presidentearen Administrazioarenak, honako hau esatea: Estatu Batuak «aldi berri eta esanguratsu batean sartu da atzerriko politikari dagokionez, eta horrek Bigarren Mundu Gerraz geroztik herrialdeari eskatu zaion baino askoz gehiago exijituko dio AEBri Indiako Ozeanoaren eta Ozeano Barearen inguruan». Ukrainako inbasioak ere ez du lortu arreta fokua Txinatik urruntzea; izan ere, Estatu Batuentzat, Txina «mehatxu sistemikoa da, nazioarteko sistema aldatzeko gaitasuna duen herrialde bakarra den heinean»; ondorioz, Estatu Batuek finkatutako estrategiak «lehentasuna emango dio lehiaren arloko abantaila iraunkorra mantentzeko Txinako Herri Errepublikarekiko, eta, horrekin batera, oraindik sakonki arriskutsua den Errusia mugatuko du»^[21].

Ukrainako gatazka hedapen kapitalistaren dinamika propioetan sartuta dauden bi blokek aurre egin behar dieten zailtasunen adierazpen belikoa da. Txinaren asmoa bakegile gisa agertzea da, NATOren hedapena indargabetu eta Europar Batasuneko herrialdeekiko merkataritza lotura indartzeko; izan ere, badirudi Europar Batasunean Estatu Batuekiko posizio kritikoak indarra hartzen ari direla –hala erakusten dute, besteak beste, Sánchez, Macron, Scholz edo Von der Leyen bile-ra egin izanak Xirekin edo Europako burokraten artean autonomia estrategikoaren ideiak indarra hartu izanak–. Gatazkaren ibilbidea klase borrokaren garapenak markatuko du; horrek, beraz, zilegitasuna kentzen dio ekonomia kapitalistaren eta bere gerraren zabaltze geldiezinean oinarritutako edozein irakurketa katastrofistari, bai eta kapitalismoa bere erantzukizuna zuzitzeko eta zibilizazioa salbatzeko bide bakarra Mendebaldearen garaipena dela defendatzen duen interpretazio erreformista liberalari ere.

Ez dago justifikaziorik ezein inperialismo defendatzeko. Errusiako eta Ukrainako proletariotzarekiko elkartasun eta anaitasun internazionalerako tokia baino ez dago; anaitasun hori da, gainera, laguntasun abstraktu bat izatetik urrun, «gobernuen arteko gerra hori gerra iraultzaile bilakatzeko» nazioarteko estrategia sozialista bat eratzeraz bultzatzen eta motibatzen gaituen izpiritua

GERRAREN KONTRA

Gerraren kritika egiteko, beharrezkoa da haren izaera aztertu eta, ondorioz, hari aurre egiteko estrategia internazionalista bat ezartzea. Gobernu burgesek, ideologia nazionalistaren bitartez, gure klasearen pasiorik baxuenak elikatzen ditu, «*nazioen arteko borroka*» betikotzeko, horrek ezinezko bilakatzen baitu langileen arteko aliantza serio eta zintzo oro [...] eta, ondorioz, baina haien emantzipazio komuna ere»^[22]. Gerra bereizketa artifizial horren adierazlerik tragikoena da, eta modu gordin eta izugarrian erakusten du internazionalismoaren beharra emantzipazioa erdiesteko bide gisa. Klasearen betebeharra da bere blokeari aurre egitea, zantzen duten erakundeak nahiz kapitala gaitzetsi eta konfrontatzea; betebeharrak hori ez da emantzipazioa ebatzi beharreko klase borroka ezberdinen batura gisa ulertzen duen lizentzia chauvinista bat. Programa komunistaren gauzatze internazional(ist)a da, antolakuntza politikoak burgesia globalaren Estatuetan ezartzen dituen aukera errealean arabera. Europako militantziaren ahalegina, egun garatuta dagoen moduan, Mendebaldeko oligarkia finantzarioari aurre egitera bideratuta egon behar da, bai eta bere lurraldean zabaldua dauden botere egiturei aurre egitera ere: NATO, Banku Zentrala, Europar Batasuna, estatu kideak... Izan ere, horiek dira Europar kapitalaren

azpiratzea gorpuzten duten erakundeak eta Ukrainako lurraldean sarraski inperialista elikatzen dutenak. Onartezina da inongo potentziarekin lerrotzea. 1914an bezalaxe, «ikus-teko egungo gerran “aberriaren defentsa”ren ideia babes daitekeela uste izatea antihistorikoa, faltsua eta hipokrita dela, nahikoa da egungo gerra potentzia “handien” politiken eta horien oinarritzko klaseen luzapen gisa ulertzea^[23]». Ez dago justifikaziorik ezein inperialismo defendatzeko. Errusiako eta Ukrainako proletariotzarekiko elkartasun eta anaitasun internazionalerako tokia baino ez dago; anaitasun hori da, gainera, laguntasun abstraktu bat izatetik urrun, «gobernuen arteko gerra hori gerra iraultzaile bilakatzeko» nazioarteko estrategia sozialista bat eratzeraz bultzatzen eta motibatzen gaituen izpiritua.^[24] ●



«Zoramenen eten egingo da eta
infamaren mami odoltsua desagertu
gingo da Alemaniako, Frantziako,
Ingalaterrako eta Errusiako langileak
beren eldarniotik esnaten direnean,
eskuak amaitasunez rabaltzen
dituztenean eta gerraren faktore
imperialisten abesbata basatia
eta hiena kapitalisten orro latza
isilarazten dituztenean langileen
borrokarako oihu zahar eta
boteretsuarekin: Herrialde guztietako
langileok, elkar zaituzte!»

Rosa Luxemburg

ERREFERENTZIAK ETA OHARRAK

[1] Andrew Kliman, Michel Roberts edo Guglielmo Carchedi autoreen obrak sarrera egokia dira gaia lantzeko. Kliman, A. (2010): *The failure of capitalist production. Underlying causes of the Great Recession*. PlutoPress; Roberts, M. (2009): *The Great Recession*. LuluPress; Carchedi, G. (2011): *Behind the crisis: Marx's Dialectics of Value and Knowledge*. BRILL.

[2] ELGAren eta Eurostaten arabera, Espainiako Estatua, Polonia, Italia, Txekia edo Grezia, besteak beste, batez bestekoaren gainetik daude urtean lan egindako orduetarako dagokienez, aparteko orduak kontuan hartu gabe. Informazioa eskuragarri: https://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php?title=Hours_of_work_-_annual_statistics

[3] Cuadrado, P (2023): «Un análisis de la evolución de las horas trabajadas por ocupado en España: desarrollos tendenciales y evolución reciente». Espainiako Bankua.

[4] Marx, K (1971): *Grundrisse. Elementos fundamentales para la crítica de la economía política*. I. liburukia. Siglo XXI

[5] Artikulu honetan, Pablo del Amok laburtu egiten ditu NATOk dituen arazoak epe laburrean munizioa hornitzen jarraitzeko: «El eterno retorno de la política industrial» (martxoa, 2023). Hemen eskuragarri: <https://www.descifrandoaguerra.es/el-eterno-retorno-de-la-guerra-industrial/>

[6] Lenin, V.I. (1915): *El socialismo y la guerra*.

[7] Langabezia estrukturala, batez ere gazteen artean, eta soldatapeko lanaren kalitate txarra dira kapitalaren gaitasun integratzaileetan atzerakada bat gertatu dela adierazten duten elementu nagusiak.

[8] Estatuaren izaera klasistan sakontzeko: *State, Class Struggle, and the Reproduction of Capital*, Simon Clarke autorearena, «The State Debate» liburuan jasoa (1991).

[9] Engels, F. (1880) autorearen lan honetatik hartua: *Del socialismo utópico al socialismo científico*. Hemen eskuragarri: marxists.org

[10] Estatu kapitalistaren garapen historiko eta kritikorako, Simon Clarke autorearen (1988) «Keynesianism, Monetarism and the Crisis of the State» liburuaren 7. kapitulua, *Overaccumulation and the Limits of the Nation State*, irakurtzea gomendatzen da.

[11] Grossman, H. (1929): *Ley de la acumulación y del derrumbe del sistema capitalista: una teoría de la crisis*. Siglo XXI

[12] 2021ean, Europar Batasunak 20.000 milioi euro jaulki zituen bere lehen eurobonurako, NextGeneration funtsak finantzatzeko; Europan aurrekaririk gabeko adibidea da eta ezin hobeki islatzen du deskribatu dugun Estatuaren funtzio ekonomikoa –errentagarritasuna estimulatzea inbertsio pribatua iristen ez den eremuetan–. Iturria: cincodias.elpais.com/cincodias/2021/06/15/mercados/1623748256_188119.html

[13] Arteka aldizkariaren 38. zenbakiak Txinako clase-borrokaren garapenaren zenbait gai gako jorratzen ditu.

[14] 2019an, garai hartan Europar Batasunaren segurtasunerako kanpo politikaren goi ordezkari zen Federica Mogherinik, *EU-China – A Strategic Outlook* izeneko argitalpenean, honela deskribatu zuen Txina: «bazkide, lehiakide eta arerio sistemikoa». Hemen eskuragarri: <https://commission.europa.eu/system/files/2019-03/communication-eu-china-a-strategic-outlook.pdf>

[15] Marx, K. (2017): Escritos sobre materialismo histórico. Alianza.

[16] Arrighi (2007) autorearen *Adam Smith en Pekín* liburuko IX. kapitulua, *El Estado mundial que nunca existió*, izenburuduna, gerturapen egokia da Estatu Batuek mundua gobernatzeko egindako ezinezko saiakerara.

[17] «Kapitalistek ez dute beren artean mundua banatzen gaiztakeriak bultzatuta, baizik eta, lortu den kontzentrazio mailak, onurak lortzeko, bide horri jarraitza behartzen dituelako, eta gero, mundu hori 'kapitalaren arabera', 'indarraren arabera' banatzen dute; ez da beste banaketa-prozedurarik posible merkataritza-ekoizpenaren eta kapitalismoaren sisteman [...]. Lehenbiziko aldiz, mundua dagoeneko banatua dago, eta, beraz, hemendik aurrera bestelako banaketak besterik ezin dira egin, hau da, lurraldeak 'jabe' batetik bestera eskualda daitezke, ez besterik» (geuk itzulia) Lenin, V.I. (2012): *Imperialismo: la fase superior del capitalismo*. Taurus, Madril.

[18] «Kapitalaren gainprodukzioa, eta ez merkantzia indibidualen gainprodukzioa – nahiz eta kapitalaren gainprodukzioak beti dakarren lehengaien gainprodukzioa–, beraz, kapitalaren gainmetaketa besterik ez da (geuk itzulia). Karl Marx, Grossmanek aipatua (1929)

[19] Mészáros, I. (2009): *La crisis estructural del capital*. Argitaletxerik gabe.

[20] «Presidente de Ucrania bloquea intento UE por salvar acuerdo de asociación» (2013). Hemen eskuragarri: <https://www.reuters.com/article/internacional-ucrania-ue-yaukovich-idLTASIE9AS05020131130>

[21] «National Security Strategy» (2022). Estatu Batuetako Gobernuak. Hemen eskuragarri: <https://www.whitehouse.gov/wp-content/uploads/2022/10/Biden-Harris-Administrations-National-Security-Strategy-10.2022.pdf>

[22] Marx, K. (1870): komunikazio konfidentzial baten pasartea, hemen jaso: «Extracto de una comunicación confidencial», Karl Marx (1870). Hemen eskuragarri: <https://www.marxists.org/espanol/m-e/1870s/educ70s.htm#fn0>

[23] V. I. Lenin (1915)

[24] Idem.

HISTORIA
ERREPORTAJEA

XX. mendeko inperialismoaren inguruko eztabaidak: alderdi sozialdemokraten posizionamendu- aldaketa argitara



Naia Gurrutxaga



XX. mendearekin batera hainbat eztabaida plazaratu ziren; izan ere, mundu mailako aldaketa bat ekarriko zuen testuinguru baten atarian zen gizartea. Aurreko mendean gizarte kapitalistaren osaera izan zen, liberalismoaren ideologiaren azpian burgesiak boterea hartu zuelarik. Ekonomiari dagokionez, industrializaziorako eta hazkunde ekonomikorako arazoak nabarmenak ziren; hala ere, industriaren transformazioak zein merkatuen zabalpenak arazo horiei aurre egitea ahalbidetu zuen. Arlo sozialari erreparatuz, ordura arteko garairik lasaiena balitz bezala identifikatu izan da, ordura arte sekula ez baitziren hain urriak izan indar iraultzaile eta sozialistak.

Europarentzat guztiz garai lasai eta oparoa bazirudien ere, ekonomia industrialaren garapenaren garaian kontraesan ugari zeuden, eta gizartearen oreka apurtzea eragin zuten. Gobernadore askok eta askok beren buruari enperadore titulua jarri zioten Europan, hala nola Alemanian, Austrian, Errusian, Turkian eta Britainia Handian. 1890 inguruan erabili zen lehen aldiz inperialismo kontzeptua, zeinak haustura baitzekarren aurreko kolonialismoaren etaparekin. Ordutik aurrera, helburua jada ez zen izango herrialde batek beste bat bereganatzea, baizik eta mundua potentzia handien menpe banatzeko mugimenduak egingo zituzten, hau da, Kapitala eta lan-indarra mundu mailako potentzia handienek bereganatzekoak.

Garai hartan herrialde nagusiak Erresuma Batua, Frantzia, Alemania, Italia, Herbehereak, Belgika, Estatu Batuak eta Japonia izan ziren. Galtzaileen artean Espainia eta Portugal kokatzen ditugu; izan ere, galdu egin zituzten aurretik bereganatuta zituzten koloniak. Testuinguru horretan, amaiera eman zitzaion aurretik aipatutako lasaitasun egoerari, mundu mailako gerra baten arriskua erreala baitzen. Masa-mugimendu antolatuek presentzia nabarmena lortu zuten, eta mundu mailan gertatzen ari ziren aldaketa handien aurrean hainbat eztabaida piztu ziren. Hain justu, hauek izan ziren eztabaida nagusiak: Lehen Mundu Gerraren jatorria, Errusiako Iraultzaren hastapenak, langile mugimenduen zein mugimendu sozialistaren garapena eta zer posizionamendu hartu behar zuten alderdi sozialdemokratek inperialismoaren aurrean.

Ordutik aurrera, helburua jada ez zen izango herrialde batek beste bat bereganatzea, baizik eta mundua potentzia handien menpe banatzeko mugimenduak egingo zituzten, hau da, Kapitala eta lan-indarra mundu mailako potentzia handienek bereganatzekoak

Inperialismoaren inguruko eztabidak herrialde batzuetako alderdi sozialdemokraten hainbat kongresutako puntu garrantzitsu bilakatu ziren; eztabaida horietan askotariko posizionamenduak izan ziren. Eztabaida horietatik bi elementu azpimarratzea ezinbestekoa da: alde batetik, alderdi sozialdemokraten barruan zeuden joeren arteko talkak, eta, bestetik, Lehen Mundu Gerraren testuinguruan alderdi sozialdemokratek nola aldatu zuten inperialismoarekiko posizionamendua.

Batetik, kontuan izan behar dugu herrialde bakoitzean alderdi sozialdemokrata bakarra bazegoen ere, haren barruan joera edota korronte desberdinak egon ohi zirela, eztabaida horietan posizionamendu desberdinak zituzteenez gero. Eztabaida horiek ezin ditugu soilik eztabaida teoriko bezala ulertu; kontrara, haietan alderdi sozialdemokraten barneko korronteen arteko desberdintasun politikoak, estrategikoak eta taktikoak nabarmendu ziren.

Bestetik, II. Internazionalaren barruan integratuta zeuden alderdi sozialdemokratek, Lehen Mundu Gerraren hastapenetan, errotik aldatu zituzten inperialismoaren inguruan hartuak zituzten hainbat jarrera. Gatazka belikoaren parte ziren herrialdeetan alderdi sozialdemokratak indarrean zeuden, eta horrek gerraren hasieran eragina izan bazuen ere, posizionamendu aldaketa horren oi-

narrian beste hainbat elementu ere aurkitzen ditugu. Aurretik esan bezala, Lehen Mundu Gerraren aurreko garaian hainbat eztabaida izan ziren, eta eztabaida horiek ere alderdi sozialdemokraten norabidea aldatzea eragin zuten. 1914. eta 1918. urteen artean nazioaren inguruan eztabaidatu zen luze, baita nazionalismoaren eta sozialismoaren arteko harremanaz ere. Garai hartan, orokorrean nazioaren eta klase gatazkaren inguruan eztabaidatu zen, eta hori da alderdi sozialdemokratek inperialismoaren inguruan hartutako erabakien oinarrian dagoen eztabaida.

Inperialismoaren inguruko eztabaiden aurretik, kolonialismoaren inguruko lehen eztabaidak Karl Kautskyren analisi baten ostean etorri ziren. Bertan kolonien arteko desberdintasunak identifikatu zituen; hain justu, analisi hori hartzen da sozialismotik kolonialismoaren inguruan egindako lehen analisisatzat. Kautskyren lanaren ostean, 1896 eta 1903 artean, «eztabaida errebisionista» izenez ezagutzen dena etorri zen. Eztabaidaren alde batean Eduard Bernstein zegoen, errebisionismoaren teorikorik garrantzitsuena, eta beste aldean, Ernest Belfort Bax, Karl Kautsky eta Rosa Luxemburg zeuden. Eztabaida horretan Bernsteinen posizioa kolonialismoaren aldekoa izan zen, eta Baxena, berriz, kolonialismoaren aurka altxatzen ziren horien aldekoa.



Eduard Bernstein



August Bebel



Henri Van Kol

Bernsteinek kolonietako gizarteak giza talde ez-garatu moduan definitu zituen, eta Europako nazioak haien gainetik kokatu zituen. Kolonialismoa zibilizazioaren garapenerako beharrezko prozesu moduan identifikatzen zuen, eta, beraz, bere ustez garrantzi-gabeak ziren herrialdeen askatasunaren gainetik kokatzen zuen Europako nazioen garapena. Baxek kolonietako gizarteen alde egin zuen, eta sozialisten eginbehartzat jo zuen kolonietako altxamendu armatuak defendatzea, eta, beharrezkoa bazen, laguntza material eta militarra ematea. Kautskyk Bernsteinen aurka egin zuen, baina beste elementu batzuetan oinarritu zen horretarako. Defendatzen zuen kolonialismoa kapitalismoaren aurreko sektore batzuek bultzatzen zutela, zeinak ez baitziren zuzenki burgesia industrial, eta horrek garapen historikoa oztopen zuten zuela.

Ezbai errebisionistaren ondoren izan ziren eztabaidetan elementu berriak gehituz joan ziren, baina debate horrek argitara atera zuen ondorengo eztabaida guztietan oinarrian egon zen banaketa, errebisionisten zein erreformisten eta sozialisten artekoa.

INPERIALISMOAREN EZTABAIDA

Inperialismoaren inguruan eztabaidatzeak urgentzia zuen; izan ere, Hispanoamerikako gerra eta Boerren Gerra presentzia handia izaten ari ziren, eta, bitartean, irekitzen ari zen mundu mailako gerra bat gertatzeko arriskua.


1899. urtean, Parisen, Internazionalaren Bigarren Kongresua egin zen eta, bertan, Luxemburgek inperialismoaren aurrean langileak antolatzeko beharra aldarrikatu zuen. Ondorengo urteetan zenbait kongresu egin ziren: 1900. urteko irailean Mainzen, Dresdeneko Kongresua 1903. urteko irailean, Amsterdameko Kongresua 1904. urtean... Kongresu horietan, berretsi egin zen Luxemburgek aurretik defendatutakoa inperialismoaren aurrean sozialdemokraziak hartu beharreko posizioei buruz. Sozialdemokraziak zapalkuntza eta esplotazio ororen aurka jardun behar zuen batetik, eta, bestetik, beraz, herrialde guztien arteko harreman baketsuak bultzatu behar zituen.

1907ko abuztuan, Stuttgarten, II. Internazionalaren kongresu bat izan zen. Kongresu horretan bertan Henri Van Kol holandarraren hitzek zeresan handia izan zuten. Van Kolk ez zituen errespetatzen aurreko kongresuetan sozialdemokraziak defendatutako posizioamenduak, eta eztabaida horretan bertan bere aurka kokatu zen Kautsky. Van Kolk ez zituen negatibotzat jotzen kolonialismoaren adierazpen guztiak, are gehiago, II. Internazionalak politika kolonial sozialista positibo bat bereganatu behar zuelako ideia defendatzen zuen. Kautskyk ideia horien aurrean azaleratu zuen Van Kolen argudioen atzean herrialdeen banaketa bat ez-kutatzen zela: herrialde batzuk menderatzea eta beste batzuk haien menderatzaileak.



Rosa Luxemburg


**Eztabaida horietatik bi
elementu azpimarratzea
ezinbestekoa da: alde batetik,
alderdi sozialdemokraten
barruko joeren arteko talkak,
eta bestetik, Lehen Mundu
Gerraren testuinguruan
alderdi horiek nola aldatu zuten
inperialismoarekiko zuten
posizionamendua**



Vladimir Ilich Lenin



Karl Kautsky



Ernest Belfort Bax

**Eztabaida horiek ezin ditugu soilik
eztabaida teoriko bezala ulertu; kontrara,
haietan alderdi sozialdemokraten barneko
korronteen arteko desberdintasun
politikoak, estrategikoak eta taktikoak
nabarmendu ziren**



Stuttgarteko Kongresuan izan zen beste eztabaida garrantzitsu bat defentsa nazionalari buruzkoa izan zen. Eztabaida horretan, August Bebelez gain, Luxemburgek eta Leninek ere parte hartu zuten. Bebelek defendatzen zuen sozialdemokratek defentsa nazionalerako gerretan parte hartu behar zutela. Defentsa nazionalaren terminoaren inguruan Luxemburgek zein Leninek ekarpen garrantzitsuak egin zituzten, kongresuaren barruan adostasun bat bilatzera begira. Defentsa nazionalaren argudioa alde batera utzita, Luxemburgek eta Leninek argi utzi zuten sozialisten eginbeharra zela, lehenik eta behin, gerraren hasiera gelditzea. Bigarrenik, esfortzu horren ostean gerrak aurrera egiten bazuen, sozialistek gerra hori geratu behar zuten ahalik eta azkarren. Amaitzeko, Leninek defendatzen zuen gerrak eragindako krisi politiko zein ekonomikoaz baliatuta, kapitalismoa abolitzeko baldintzak irekitzen zirela.

Defentsa nazionalaren eztabaida horren oinarrian estrategia desberdinen talka agertu zen. Alde batetik, Van Kolen arrazoiketaren oinarrian, kapitalismoaren zabalpenaren argudioa zegoen: sozialismorako bidean, kapitalismoa zabaltzea beharrezkoa dela defendatzen zuen. Bestela esanda, haren ustez, sozialismoa mundu mailan eraikitzeko, beharrezkoa zen herrialde horietan guztietan kapitalismoa zabaltzea. Kautskyk ideia hori arbuaitzen zuen; izan ere, ez zuen uste herrialde guztiak sistema kapitalistaren barruan integratuta egotea bete beharreko baldintza zenik sozialismoa lortzeko.

Honaino ikus dezakegunaren arabera, argi geratu da eztabaida horien oinarrian sozialismora iristeko estrategia zegoela, sozialismoa helburu izanik. Herrialdez herrialde, alderdiaren arabera eta hura kokatzen zen testuingurua kontuan hartuz, hainbat eztabaida izan ziren.

FRANTZIA

Frantzian, sozialismoaren barnean, bost joera zeuden 1890. urte aldera: blankistak (jatorria tradizio intsurrekzionalistan zutenak), guesdistak (marxismoarekin lotura estuena zutenak), posibilistak (joera erreformista zutenak), allemanistak (sindikalistek gertu kokatzen zirenak) eta diputatu independente batzuk.

XX. mendearen hasieran, Alexandre Millerand sozialista independentea Merkataritza ministro bezala jarduten hasi zen, Waldeck-Rousseauren defentsa-kabinete errepublikanoan. Horren ondorioz, banaketa izan zen alderdian. Alde batetik, *Parti Socialiste Français* alderdia osatzen zutenak zeuden, eta bertan zeuden fakzio ministerialista, independenteak, posibilistak eta allemanista batzuk. Bestetik, *Parti Socialiste de France* zegoen, Milleranden aurka kokatzen ziren guesdistek eta blankistek osatzen zuten alderdia. 1905. urtean alderdi bakar bat osatu zuten, *Section Française de l'Internationale ouvrière* (SFIO), ministerialistek indarra galtzearen ondorioz.

Jean Jaurès eta Paul Louis izan ziren kolonialismoaren inguruan teorikorik garrantzitsuenetariko bi. Jean Jaurèsek kolonietakoen eskubideak defendatzea aldarrikatzen zuen, baita europarren interesak bermatzea ere, bertakoekin adiskidetasunez jokatzuz. Kolonialismoaren aurka bazegoen ere, hura kapitalismoaren barruan ekidin ezin zitekeen fenomeno moduan identifikatu zuen. Bere ustez, sozialisten eginbeharra zen batetik Europa mailako gerra ekiditea, eta bestetik, kolonietakoekin harreman hobeak eraikitzea.



**Eztabaida errebisionistaren ondoren
izan ziren eztabaidetan elementu
berriak gehituz joan ziren, baina
eztabaida horrek argitara atera
zuen ondorengo eztabaida guztietan
oinarrian egon zen banaketa,
erebisionisten zein erreformisten eta
sozialisten artekoa**



Paul Louis Lévy



Jean Jaurès

Paul Louis blankista zen, eta inperialismoa fase historikotzat jotzen zuen. Inperialismoaren kausatzat identifikatzen zuen kapitalismoaren krisia, hau da, kapitalismoak merkatu berriak behar zituen metropoliko dirua inbertitzeko eta baliabide berriak bilatzeko. Horren ondorioa, aldiz, negatiboa zen proletariotzarentzat. Horren aurrean sozialisten eginbehar bezala ikusten zuen zapaldu guztien arteko elkartasuna.

1911. urtean, Marokoko krisialdiaren garaian, alderdiaren barruan kolonialismoaren eta inperialismoaren inguruko iritziaeren bateraezintasuna nabarmendu zen. Alderdiaren barruan eskuineranzko joera nagusitu zen Lehen Mundu Gerraren atarian. Alde batetik, Guesdek eskuineranzko joera hartu zuen frantsesak Marokon kolonizazio sozialistaren proposamenaren alde kokatu zirenean. Bestetik, Andler eta Jaurèsen arteko eztabaidan argi geratu ziren Andlerren eskuineranzko pausoak. Orokorrean, SFIOren Bresteko Kongresuan (1913), hainbat posizionamendu atera ziren argitara.

ALEMANIA

1912an, Chemnitzeko Kongresuan, inperialismoaren inguruan eztabaidatu zen, eta lau posizionamendu nabarmendu ziren. Lehenengoa inperialista sozialena zen (eskuineko erreformistak). Inperialismoaren garaian langileek, gerra ekiditeko asmoarekin, Estatuaren alde egin behar zutela aldarrikatzen zuten. Bigarrena Bernsteinek plazaratu zuen argudioa izan zen, eta, inperialismoaren izaera ideologikoa azpimarratu zuen ekonomikoaren gaitetik. Hirugarrenetik, Haase, Kautsky, Ledebour eta Liebknechten taldeak defendatutako posizioa zegoen; haiei lehenasunezko eginbeharra iruditzen zitzairen gerraren aurkako posizioa hartzea. Azkenik, laugarren posizio bat defendatzen zuten ezkerreko erradikalek; gerraren aurka antolatzeke, masen antolakuntzaren alde egin zuten.

Kongresuan bertan hirugarren posizionamendua nabarmendu zen, Kautskyren taldearena. Gerraren aurka kokatzen baziren ere, ez ziren iraultzaileak. Haien posizionamendu hori are argiago geratu zen gerraren atarian. Testuinguru horretan, talde horretakoek gehienbat lan propagandistikoa egin zuten, eta, aldiz, ezkerreko erradikalek begi-bistan zuten gerraren aurrean antolatzen hastea eskatzen zuten. Kautskyren taldeak zailtasunak erakutsi zituen beren jarrera antimilitarista defendatzeko; izan ere, gerraren testuinguruan hartu beharreko hainbat neurri bozkatzeko orduan argi geratu zen haustura zegoela taldearen barruan. 1913. urtean, gobernuaren eskutik, zabalpen militarerrako proiektu bat aurkeztu zen, jabetza pribatuaren gaineko zeharkako zergak igotzea ahalbidetzen zuena. 1913. urtean, beraz, proiektu hori aurrera ateratzearen edo atzera botatzearen erantzule izango ziren sozialdemokratak. Hortaz, Reicheko politikan zuzeneko eragina izango zuen, eta ez gainera soilik arlo teorikoan. Erabaki horren aurrean, areago-tu egin ziren sozialdemokraziaren barneko desadostasunak.



SPD alderdiaren 1912ko Chemnitzeko Kongresua

ITALIA

Lehen Mundu Gerran, Italiak, beste herrialde askok ez bezala, ez zuen posizionamendurik aldatu inperialismoarekiko.

Inperialismoaren inguruko lehen eztabaidak 1892. urtean izan ziren, Alderdi Sozialista Bateratuaren sorrerarekin batera. Eztabaida horien testuingurua Etiopia konkistatzeko saiakerak izan ziren. Nagusitu zen eztabaida zera izan zen: ea inperialismoa kapitalismoaren kontraesanen soluzioa zen edo ez. Bertan bi pertsonak esku hartu zuten. Olindo Malagodiren ustez, bazen inperialismo berri bat, burgesiak zabaldu nahi zuena era berean kapitalismoa zabaltzeko asmoz. Bestela esanda, haren ustez inperialismoa bazen kapitalismoaren barne-kontraesanen soluzioa; izan ere, burgesiak, soldata altuagoen bidez, beste herrialdeetako proletariotza erakartzea lortzen zuen.

Filippo Turatti Alderdi Sozialistaren sortzaileak, zeinak joera erreformistak jarraitzen zituen, Magalodiren arrazoi-ketari berea kontrajarri zion. Haren iritziz, aurrekoak planteatu zuen soluzioak soilik epe motzera funtzionatuko zuen, hau da, merkatu berri horiek kolapsatzean, berririo hasiko zen krisial-

di bat, eta horrek mundu mailako krisialdi bat ekarriko zuen. Kolonialismoa ez zuen krisialdiaren aurreko soluzio moduan planteatzen. Haren ustez, kapitalismoaren krisialdiei konponbidea emateko, protekzionismoa alde batera utzi behar zen, eta Kapitala inbertitze-ko merkatu askeen alde apostu egin.

Antonio Labriola Italiako Alderdi Sozialistako ezkerreko liderra Libiaren okupazioaren alde zegoen, hura italiarrak emigraziorako lurralde egokia zela defendatzen zuelako.

Eztabaidaren bigarren fasea 1911. urtean hasi zen, eta biziagotu egin zen gerrari hasiera eman zitzaionean. Italiako Alderdi Sozialistak, gerraren hasiera hartan, gerraren aurkako propaganda-kanpaina bati ekin zion. Horren ondoren, krisialdi ekonomikoaren testuinguruan, hainbat greba zein altxamendu egin zituzten langile sektore zabalek. 1912. urtean ezkerrek hartu zuen Italiako Alderdi Sozialistako gidaritza eta eskuineko erreformistak alderditik kanporatu zituzten. Azkenik, Lehenengo Mundu Gerraren hasieran, Errusiako Alderdi Sozialistarekin batera, inperialismoaren aurka kokatu zen.



Olindo Malagodi

Lehenengo Mundu Gerrarekin batera II. Internazionalela desegin zen, eta Italiak eta Sobietar Batasunak posizio antiinperialistak defendatu bazituzten ere, beste alderdi sozialista askok eskuineranzko joera garatu zuten, eta inperialismoaren aldeko posizioak hartu



Olindo Malagodi


BUKAERARAKO



Begi-bistakoa da testuinguru historikoaren arabera aldaketa handiak izan direla herrialde bakoitzean inperialismoaren inguruan hartutako posizionamenduetan. Gainera, II. Internazionaleko alderdien barnean ere joera desberdinak zeuden, eta, garaian garaiko baldintza historikoen arabera, batzuk besteei nagusitzen zitzaizkien.

Inperialismoaren garaia haren sieran, sozialistek defendatzen zuten inperialismoa herrialde edo potentzia kapitalisten politika biolentoa eta erreakzionarioa zela. Inperialismoaren helburu moduan identifikatzen zituzten alde batetik herrialdeek kapitalismoa gailentzearen ondorioz sortu ziren merkatu berrien beharra asetzea, eta, bestetik, lehengai berriak eskuartzeko beharrari erantzutea. Inperialismoaren ondorioz, areagotu egin ziren herrialdeen arteko gatazkak, eta, horren aurrean, sozialistek fenomeno horren oinarriaren inguruko azalpen osatuago bat eraikitze beharra ikusi zuten. Hor aurkitzen ditugu inperialismoaren faktore gisa garatu ziren hainbat teoria: kapital soberakina inbertitzeko merkatu berrien beharra, kapital finantzarioaren sorrera, indar produktibo eta harreman sozialen arteko talka...

Testuinguru horretan, hainbat autoren sozialismoaren eraikuntzaren barruan inperialismoak (eta, bere horretan, kapitalismoak) betetzen zuen rola inguruan ere eztabaidatu zuten. Eztabaida horietan, estrategia desberdinen arteko talkak nabarmendu ziren, izan ere, momentuko kapitalismoaren «arazoei» aurre egin baino (merkatu zein lehengai faltari), sozialismorako bidean alderdiek finkatu behar zuten estrategiaren inguruan eztabaidatu zen.

Lehen Mundu Gerraren atarian, inperialismoaren inguruko posizionamendu banaketa hori are nabarmenagoa bihurtu zen, eta eskuineko jarra nazionalistak areagotu egin ziren alderdi sozialisten barruan. Posizio chauvinistek presentzia handia hartu zuten, eta nazio bakoitzaren politika inperialistaren aldeko jarrera aktiboa bultzatu zen. Lehenengo Mundu Gerrarekin batera II. Internazionalela desegin zen, eta Italiak eta Sobietar Batasunak posizio antiinperialistak defendatu bazituzten ere, beste alderdi sozialista askok eskuineranzko joera garatu zuten, eta inperialismoaren aldeko posizioak hartu zituzten. ●





Argitalpena
2023KO EKAINA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**


Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia



The background of the image is a white page with a large, abstract graphic on the left side. This graphic consists of numerous thin, parallel red lines that create a strong sense of depth and movement. The lines are arranged in a series of nested, overlapping V-shapes or chevrons that point towards the right. The density of the lines increases as they move away from the center, creating a tunnel-like effect. The word "arteka" is centered horizontally and partially overlaps the red line pattern.

arteka